



# ARGIA

***Errezeta neoliberalari erresistentzia***

# ZAD




» **GERNIKAKO BONBARDAKETA: GEZURRAK EZ DU ATERTU**

» **KEPA ALTONAGA SAIOGILEA: "EUSKALDUNEK EZ DUTE EUSKALDUN IZAN GURA"**

» **TXIKIPEDIA JAIO DA: HAURENTZAKO 1.000 ARTIKULU EUSKARAZ**



Egunero lan berriak sareratzen ditugu  
2.300 bideo baino gehiago ikusgai




### Erreportajeak

Bost minutuko bideoak. Gai mamitsuak era argian azalduta.



### Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpiztituluekin.




### Web Telebistak

Euskal Herrian eta euskaraz egiten diren web telebista guztien biltokia.




### Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa.



### Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.




### Elkarrizketak

Zer esana eta pentsatua ematen duten pertsonekin solasean.



### Ekitaldiak

Dantza, musika, antzerkia... askotariko emanaldiak klik batean.



### Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.

**PANORAMA**

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Fauna publikoa
- 10 Ardoak pestizidak daramatzanez, ezagutu ditzagun haien zaporeak

**IRITZIAK**

- 17 Estitxu Garai Artetxe
- 18 Ramon Etxezarreta
- 19 Aingeru Epaltza Edu Zelaieta
- 20 Karmelo Landa



*Gernikako 318 eraikinetatik 271 "erabat suntsituta" geratu ziren, Xabier Irujoren arabera; bonbardaketa herritarrek "harrapatzeko" diseinatu zela dio.*

GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA

- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIAKO AZOKA
- 41 ARGIA KOMUNITATEA
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 47 ARTEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 49 DISKOA
- 50 ZUZENeko EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: JULIETTE BERGOUGNAN
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO IRUDIA: OLIVIER LANRIVAIN

**SAKONEAN**

- 12 | Gabi de la Maza: "Motibazioak erabilera dakar" / Miel A. Elustondo
- 22 | ZAD: Erresistentzia beltza eta koloretsua / Itziar Bardaji Goikoetxea
- 28 | Sahara: Hiru belaunaldi, muturreko lurraldean harrapatuta / Miren Osa Galdona
- 32 | Gernika: Gezurraren kedarra bizirik dago / Urko Apaolaza Avila
- 36 | Txikipedia: Haurrentzako Wikipedia jaio da / Onintza Irueta Azkune
- 43 | Kepa Altonaga: "Euskaldunok ez gara mundu honetara herri normala izateko etorri" / Mikel Asurmendi

ALDIZKARI HAU IRAKURRI OSTEAN, EMAN NORBAITI EDO UTZI LEKU PUBLIKO BATEAN. BILDUMAGILEA EZ BAZARA, NOSKI.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**Jabetza:** Komunikazio Bizilagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea.  
**Lehendakaria:** Bego Zuza.  
**Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.  
**Erredakzioa:** Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Maddi Txintxurreta, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Miren Osa, Onintza Irueta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona.  
**Diseinua:** Sergio Labrador.  
**Argazkilaria:** Dani Blanco.  
**Produktzioa eta inprimaketa:** Antza S.A.L.  
**Administrazioa:** Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.  
**Salmenta:** Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.  
**Idazkaritza:** Aloña Sorraluze, Bego Zuza.

**DOAN ETA LIBRE**

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

**Web garapena:** Asier Iturralde.  
**Informatika:** iametza interaktiboa, S.L.  
**Lege gordailua:** SS 837-2012.  
**ISSN:** 0213-909X.  
**Batzorde parekidea:** 72562 E.  
**HELBIDEAK:**  
**Gipuzkoa:** Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel.: 943 371545.  
**Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa:** Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.  
**Nafarroa:** Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.  
**POSTA ELEKTRONIKOAK:**  
**Komertziala:** komertzial@argia.eus  
**Harpidetzak:** harpide@argia.eus  
**Erredakzioa:** kazeta@argia.eus

PANORAMA

## Agora ye'l momentu

Gaur egun ere asko eta asko harritzen dira Espainiako Estatuan hamaika hizkuntza hitz egiten direla entzutean. Espainiar nazionalismo baztertzailaren urtetako lana ez baita Francoren gauerdiko eztabaida. Euskaldunok zerbait badakigu horretaz, baina Penintsulako hizkuntza askori izate hutsa bera ere ukatu diote, dialekto gisa aurkeztuz. Horieta kasu esanguratsuenetako bat dugu asturiera. Leon, Zamora eta Asturias artean hitz egiten da haren moldaeraren bat, azken inkestaren arabera Asturiasko herritarren %53 haren ofizialtasunaren alde dago. Asteburuan Uviéun hizkuntzaren alde aspaldi egindako manifestaziorik handiena osatu zuten 30.000 lagunek. Urteetan ukatutakoa lortzeko orain baita garaia.

Argazkia: Iván G. Fernández · Testua: Axier Lopez





URIANU  
OFICIALIA

MANANA LLION OFICIALIDA

Larragan omendu dute frankistek bortxatu eta erail zuten bizilaguna: Maravillas Lamberto loldi.

**t** “Omenaldia Larragan Maravillas Lambertori eta karlismoak, falangismoak eta ultraeskuinak errepresaliaturiko emakume guztiei, ageriko faxismoaren basakeriaren aurrean isilik geratu ziren eta geratzen den jende epela lekuko”

@EIOlitense

**t** “Ez nuen historia ezagutzen eta traumatizatu egin nau. Baina jakin beharra dago”

@Mansplai

**t** “Memoria izatearen garrantzia. Herria eraikitzen. Errelatoa finkatzen”

@otroprisma1

**t** “Barkamenaz ari gareno, nork eskatuko du barkamena Lambertorengatik? 14 urterekin Franko eta haren jarraitzaileek bortxatua eta fusilatua”

@LopeteguiE



## Eusko Jaurlaritza auzitara, Mozal Legea ezartzeagatik

Argia

Ia urtebeteko prozesuaren ostean, Mikel Saenz de Buruaga Hala Bediko kazetariari ezarritako isuna berretsi du Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak: Herritarren Segurtasunerako Legea aplikatu zioten kazetariari Gasteizko Errekaleor auzoan polizia-operazio bat grabatzeagatik. Alegazio guztiak baztertuta, Mozal Legeak zigortutako Euskal Herriko lehen kazetaria izango litzateke Saenz de Buruaga.

Hala Bedik iragarri du “amaierara arte” iritsiko direla, “informazio-askatasunaren aurkako erasoari” aurre egiteko. Salatu dutenez, “Ertzaintzak egindako txosten faltsu bat” da erasoaren oinarria, eta horregatik administrazioarekiko auzi-epaiketara joko dute ebazpen zehatzailearen aurka. Jaurlaritzaren jokabidea gogor kritikatu

dute, “eskubide zibil eta politikoak urratzen dituen lege bidegabe bat” aplikatu duelako eta “muntaiia polizial bati babesa” eman diolako. Eusko Legebiltzarrak aipaturiko legea ez aplikatzeko konpromisoa hartu zuela gogoratu dute.

Prozesu administratibo “kafkiarra” izan dela adierazi dute eta defentsarako eskubidea urratu egin zaiela, aurkezturiko frogua guztiak ukatu baitizkiete. Gainera, zigor-eskaera muntaiia poliziala delakoan daude. Gertaeren egunean bertan antolatutakoa baino, gerora eraikitako akusazioa dela uste dute, “Errekaleorren egindako kazetaritza-lanaren zigor gisa” eta egun hartan pairatutako erasoaren ondoren egindako “salaketa publikoaren mendeku gisa”.

Jaurlaritzak 8.000 alditik gora aplikatu du Mozal Legea 2016ko uztailetik, legea ez aplikatzeko konpromisoa hartu zuen arren.

## “Palestinarren mugimendu ez biolentoa oso deserosoa zaio Israeli”

RASHID KHALIDI, EKIALDE ERTAINEAN ADITUA, HISTORIALARIA ETA IDAZLEA

Gazako agintarien arabera, 33 palestinar hil eta 4.300 zauritu dituzte soldadu israeldarrek azken asteetako protesta baketsuetan. “Ia bere osotasunean mugimendu ez-biolentoa da. Milaka lagunek hesira martxak egiten dituzte eta milaka bala-tiro jasotzen dituzte. Palestinako mugimendu ez-biolentorekin izututa dago Israelgo segurtasunaren estabilmenda: palestinarrek biolentzia erabiltzen duten narratiba erraz dominatzen dute, baina bestea oso deserosoa zaie”. **DEMOCRACY NOW (2018-04-19)**



## FAUNA PUBLIKOA

# “Euskal Herrian zegoen gatazka bakarra ETA zen”

**Alfredo Pérez Rubalcaba,**  
Espainiako Barne ministro ohia (El Correo)

## Ze pereza




Gorka Bereziartua Mitxelena  
@boligorria

Rubalcabaren ibilbide politikoa erreparasatzen duenak nahiko azkar igarriko du: gizonaren eskuak zikinago daude putzu septikoa baino. Zuzeneko harremana izan du PSOEk Espainian gobernatu duenean egin dituen gauza kirastuenetan. Zapateroren garaian Barne ministro, telebista-kamerei esaten tortura salaketa guztiak ikertzen direla –Europako Giza Eskubideen Auzitegiak kontrakoa ebatzi zuen–; GALen garaian Gobernuaren bozeramaile, behin eta berriz errepikatzen kontu horrekin zerikusirik ez zutela –sarean erraz aurkitzen da Rubalcabaren argazki bat, Barrionuevori eta Verari babesa adierazten Guadalajarako kartzela atarian–. Baina gatazka bakarra ETA zen, beste gauza horiek, zera, pekatutxoak.

Estatu-arrazoia bezain iluna da Rubalcaba, estoldetako politikari bat, institutuko irakasle baten itxura kaltegabe hori eduki arren. Itzalpean mugitu zalea, botere faktikoe-kin aireztatu gabeko sotoetan edukitzen diren elkarrizketetan; zeren hortik at, animalia izu eta itsusia da, irribarre egiten du eta badirudi norbaitek aurpegian zauri bat egin diola; ez luke boto-emaila bat ilusionatuko, ezta sei hilabete-ko oporraldiak hauteskunde programan sartuta ere.

Presidente izateko lehiatu zenean, bere alderdia eraman zuen 1978tik ordura arte jasan zuen porrot handienara. Jada ez zegoen bonbarik, baina ezta botorik ere. 2014tik desagertuta dabil hedabideen lehen lerrotik, atzekoetara pasa delako, *El País*-en batzorde editorialean bukatu baitu. Martxa honetan, periodiko horren pertsiana ere berak jaitziko du, bi gobernuarekin egin zuen bezala. Bitartean, aurreratu digu zer mezu mota iritsiko den datozen egunetan irabazleen bafleetatik. Eta ze pereza ematen duen, aizue. ■



## ANALISIA



## ETAk urrats ausarta eman du



**Xabier Letona**  
@xletona

Iritsi da unea, azkenean: ETA desmobilizatu egingo da, desegin, desagertu... Kosta egiten da gaiaz idaztea. Egia esan, emoziorik sakon eta sentikorrenak 2011ko urriaren 20an bizi izan zituen euskal gizarteak, ETAk bere jarduera armatuaren behin betiko etena iragarri zuenean.

Burua hotz idatzi beharko litzateke, baina 2011ko larrazken hartan bezala, ez da samurra. Asko bizi izan da, asko sufritu, lerro bakan batzuek 60 urteko historia nola-hala irents dezaten. Hotz-beroan jardun behar, beraz, azken zazpi urteetan arima kateatua nola arrastaka doan bake prozesuaren analisisa egitean. Ezker abertzalea da bake prozesuan interesik handiena duena, eta bera ari da aurrea ateratzeko gehien jartzen. Eragindako sufrimenduari buruz ETAk egindako agiria horren lekuko: ausarta izan da. Aurreikusitako moduan, hainbat buru hainbat aburu.

Zer izan da ETA? Mutur batean terrorismorik basatiena, bestean nazio askapenerako erakundea. Horra memoriaren borroka. Horra airean geratuko den galdera nagusia, hainbat eta hainbat erantzunekin, lehen gudu zelaian

moduan, orain liburu eta hedabideetako "borroka toki gatazkaz bete".

Historia irabazleak egiten ei du. Nola kontatuko da berau 20 urtera? Nola mende batera? Besteak beste, hori da jokoan orain. Jokoan den moduan, eguneroko politikan azken mugimendu hauen ondorioak zeintzuk izango diren ikustea, izan esparru instituzionalean edo han-hemenka dantzan diren hamaika borroka sozio-politikotan.

Garrantzitsuena, alabaina, pertsonen sufrimendua arintzera edo ezabatzeraz bideratutako guztia da, funtsean, preso politikoak, iheslariak eta biktimen esparrukoak. Mugimenduak ez ei dira behar eta etorriko. Aitzakien dantzaz bada-kigu zerbait, baina berandu baino lehen hastea da kontua. Gainera, pertsonen aurretik jartzen dira beti prozesu politikoak, boteretik zenbat eta gertuago, are eta gehiago. Jar bitez lehenik pertsonak behingoz, euskal gizartearentzat ere hori izango baita onuragarriena. Birtartean, ongi etorriak aldebakarreko bideak, aldebakorik ez daudenean, horiek dira geratzen direnak eta.

Hainbeste dago esateko, hainbeste partekatze, hainbeste irensteko! ■

## EKONOMIAREN TALAIAN

## Publizitate enpresariala eta politikoa?



**Juan Mari Arregi**

Harrituta nago nola moldatzen den Iñigo Urkullu lehendakaria –edo nola moldatzen duten– egunero telebistako kameran aurrean, irratian edo prentsan egoteko bere "produktua" eta irudia saltzen. Ez dakit beste erkidegoetako gobernu-presidenteek zer egingo ote duten euren irudia nabarmentzeko. Edozein kasutan, seguruenik ez Urkulluk bezainbeste, egunero ari baita –eta batzuetan egunean bi aldiz ere bai– gauza bera egiten. Halako jokabide batek herritarren asperdura eragin dezake, eta ondorioz, bere "mezuek" oharkabean igarotzeko arriskua dute.

Joan den astean hedabideen aurrean aurkeztu dute, Confebask patronalarekin batera, baskongadetarako enplegu plana, hiru urtean 100.000 lanpostu sortzea aurreikusten duena, horietatik 70.000 jarduera ekonomikoa haziko delako eta gainerakoa belaunaldi arteko erreleboari aurre egiteko. Ziurtatu dutenez, enpresek zailtasunak dituzte euren beharrak asetzeko, batez ere lan merkatuan sartu diren langile gazteen formazio eta espezializazio faltagatik.

Zein enplegu, formazio eta soldata politika sustatuko dute administrazioetik enplegu hori errazteko? Prekarietatea, behin-behinekotasuna eta soldata baxuak ez dira batere erakargarriak gazteentzat. Ez da nahikoa 100.000 enplegu hitz ematea. Beharrezkoa da administrazioak eta patronalak esaterako Lanbide Heziketa sustatzea, honek enplegu eta soldata duinak izango baditu. Gazteek bermatuta eduki beharko lukete euren gaitasunak aseko dituzten lanbideetarako sarbidea. Horrek Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza politikaren arduraren behar luke izan; lehendakariaren iragarpen bakoitzak ez dezan eman bere irudia saldu eta publizitateko beste kanpaina bat.





## Guardia Zibil baten emaztearen bertsioa gezurtatzen duen argazkia

**DONOSTIA.** Altsasuko gazteen aurkako epaiketan, Guardia Zibileko teniente baten emazteak behin baino gehiagotan adierazi zuen auzipetuetako bat, Adur Ramírez de Alda, kamiseta gorritz jantzita zegoela erasoan gauean. Altsasuko gazteen gurasoek igorri duten argazkian argi ikusten da hori ez dela egia. Koxka tabernan erasoak gertatu ziren gaueko argazki bat zabaldu dute: Ramírez de Alda ageri da (zutik lehen lerroan, ezkerretik hasita hirugarrena), lagunekin herriko soziedade batean, gorria ez den kamiseta bat jantzita.

# Bullying kasuak erdira jaistera lortu duen metodoa

Mikel Garcia Idiakez  
@mikelgi

Biktima eta lekukoak ahalduntzen dituen KiVa metodo finlandiarra lantzen hasi ziren 53 ikastolen lehenengo ebaluazioa egin dute: eskola-jazarpena %47,3 jaistera lortu dute.

### Datu gehiago

Zuhurtziaz mintzo dira ikastolak: batetik, oraindik %10 ingurukoa delako jazarpenera; bestetik, datu gehiago etorriko direlako ikasturte amaieran, iaz metodoarekin bat egin zutenen emaitzak gehituta: guztira 63 ikastetxe eta 22.000 ikasle.

### Aldaketak

“Irakasleok beste betaurreko batzuekin ikusten dugu gaia, formazioa jaso dugulako. Ikasleen artean ere aldaketa handia ematen ari da. Hori da lortu nahi duguna, ikasleak aldatzea, eurek laguntzea eta ezin badute laguntza bila etortzea”.

### Oinarria

Arreta biktiman edota erasotzailean bakarrik jarri beharrean, talde osoa gidatzen duten arauak aldatzea da muina, lekukoak inplikatzeko, eta biktimarekin enpatizatuz eta hura lagunduz eta defendatuz, erasotzaileari aurre egitea.

## INDUSTRIA FARMAZEUTIKOA



# 10

urtetan, bikoiztu egin da minbiziaren aurkako botiken prezioa; zenbait kasutan 100.000 euroko gastua eragin diezairoke gaixoari.

60.000 milioi euroko irabaziak lortu ditu Roche enpresak, bularreko minbiziaren sendatzeko botikari esker. Botikak garatzeko, inbertsio publiko handiak jasotzen dituzte.



## KOPURU FALTSUAK

Agerian geratu da U-1eko erreferendumean zauritutako polizien kopurua puztu zuela Espainiako Gobernuak. Barne ministro Juan Ignacio Zoidok urriaren 2an esan zuen 431 polizia zauritu zirela U-1ean. Alta, PPren Gobernuak martxoaren 22an EH Bilduri bidalitako dokumentu batean esan zuen 111 zirela zaurituak.



## HILKETA MATXISTAK

Gizon batek apirilaren 20an bi emakume hil ostean, Gasteizko Mugimendu Feministak gogor salatu ditu azken hilketa matxista hauek Arabako hiriburuan egin duten mobilizazio jendetsuan.



## GURE ESKU DAGO

Azaroaren 18an izango da Donostian erabakitzeo eskubideari buruzko galdeketa. Gure Esku Dagoren dinamikaren baitan galdeketa egingo duen lehen hiriburua da. Irunek ere erabakitzeo eskubideaz galdetuko du data berean.

# Ardoak pestizidak daramatzanez, ezagutu ditzagun haien zaporeak



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Guztiok edan dugu noizbait, edo sarri, baso erdi bat pestizida, ekologikoak ez diren ardorik onenetan ere badaudelako. Gilles-Eric Seralini zientzialariak eta Jerome Douzelet sukaldariak dastatzaile jakitunei eta sukaldari ezagunei proposatu diete kalitate handiko ardoak probatuz daramatzaten botiken zaporeak aurkitu eta zehaztea. Liburu berri batean azaldu dute zein zapore daukaten edaten ditugun mama goxoen pozoi ohikoenek.



Joan den otsaileko astearte batez bilkura bitxia egin zen Parisen Frantziako Industria Sustatzeko Elkartearen egoitzan: pestiziden dastaketa bai uretan eta bai ardotan (irakurleak horren berri izan zuen 2591 zenbakian, Jakoba Errekondoren bidez). Erokeria dirudi jendeari pestizidak edatea proposatzea, baina zergatik ez ausartu, gure mahaia-tako ardorik onenek ere badaramatzatela baldin badakigu? “Benetako sukaldari bati ez litzaioke burutik pasako otordu bat eskaintzea aurrez probatu ez dituen osagaiekin”, argudiatu dute.

Probaketarako gonbidapenak zabaldu zituzten bi gizonetatik, bata ezaguna da Frantzian: Jerome Douzelet sukaldariak *Le Mas de Rivet* ostatu famatua dauka Nimes inguruetan eta aldi berean CRIIGEN Ingeniaritza Genetikoa-ren Ikerketa eta Informaziorako Elkartea Independentearen sortzaileetakoa da. Bigarrena, Gilles-Eric Seralini Frantziar gain mundu osoan da famatua OGMez eta pestizidez egin dituen ikerketengatik; Monsanto eta transgenikoen propagandistek sekula ez diote barkatuko glifosatoak eragindako gaixotasunak demostratu izana. Bien sinadura darma berriketan plazaratu den *Le goût des pesticides dans le vin* liburuak.

Aspalditik dago zabaldua ardoak, ekoizpen prozesuan gehitzen zaizkien produktuez gain, mahastietan erabilitako botikek kutsatuta daudela. 2008an Frantzian Générations Futures elkarteak 40 ardo gorri aztertuz aurkitu zuen ekologi-

koak ez ziren guztiak zeudela kutsatuta, urari onartutako gehienezko tasekin alderatuta 6.000 bider gehiagoko kutsadurarekin. Gezurra dirudien arren, ardoak ez baitauka gehieneko pestizida kopuru baimendurik; urak aldiz, bai. Kimiko horiek osasunarentzako kaltegarriak direla demostratuta dago, lanerako darabiltzaten nekazarien gaixotasun profesionala aitortzeko argudiotzat onartzen hasi dira agintariak... eta ardoaren zaporean ez ote dute eduki behar eraginik?

“Nik entzuna nuen –dio Douzelet sukaldariak– badirela sudur oso fineko jendeak hiri bateko kutsagarriak hautemateko gai direnak. Hortik abiatuta, Seralini profesoreak eta biok 2015ean hasi ginen pestiziden usainen inguruan”. Ardoak berezko aromak dauzkanez, horiekin hasi ziren erkatzen analisisetan aurkitutako pestiziden lurrinak.

Aukeratu zituzten 16 ardo bio edo ekologiko eta beste hainbeste ez ekologiko, ezaugarri berdinetakoak (eskualdea, mahats mota, urtea...) tartean batzuk ospe handiko *très grand cru* sailkatuak. Ardoei egindako analisisetan aurkitu dute ez-ekologikoetatik %89 bat eta sei arteko pestizidaz kutsatuta daudela, denetara 14 kimiko ezberdinez.

Ondoren ardo guztiak probatu eta alderatzera gonbidatu dituzte aditu ezagunak, tartean gastronomiako pertsonalitate famatuak. Ariketa neketsua, pestiziden molekulak aroma fosilizatuak baizik ez direlako, lurrin naturalen oso antzekoak, ardoaren berezko lurri-

nak inhibitzen dituztenak. Horregatik jo dute lehen urrats gisa 14 pestizida horiek uretan nahastuta dastatzera, ea zer nolako gustua daukaten botikek.

Bigarren urratsa, benetako esperimentua, iritsi da dastatzera eman ditenean kutsagaietako bakoitza ardotan aurkitutako dosietan diluitua. Liburuak hamaika fitxatan biltzen ditu pestizida bakoitzak uretan edo ardotan eragiten dituen sentazioak.

## Nolako zaporea ote dauka glifosatoak?

Adituek zehaztu dituzte pozoiek eragindako sentazioak. *Boscalide* fungizidak ahoa pittin bat lehortzen omen du, aho-sabaian erantsita geratuko balitz bezala. *Boscalide* erabiltzen da mahatsaz gain marrubi, mugurdi, zainzuri eta azenarioetan ere. *Folpetek* –beste fungizida bat– eragiten omen du “ahoren lehortzea, mikaztasuna, alkohol edo botika usaina, mihiko azkura...”.

Eta glifosatoak? “Erre egiten du. Papi-lak blokeatzen dizkizu eta ahoa luzarako erretzen. Neronek [Douzelet] esperimentuan gero eta dosi handiagoetan probatu dut eta azkenean hiru asterako utzi zidan erreta ahoa. Beste pestizida batzuek buruko mina ematen dizute, edanda berehala. Badira bonboi kimiko txarren zaporea duten pestizidak ere”.

Glifosatoan honetan aditua den Seralinik bereziki ohartarazten du edozein herritarrek bere jardinean bezala baratzetan naharo erabiltzen duen pozoia beste arrisku bat, industriak aipatu nahi



*'La Revue du Vin de France' aldizkariak ateratako argazkian, Gilles-Eric Seralini zientzialaria adituei eta zenbait herritar oinezkori ardoa zerbitzatzen berak eta Douzelet sukaldariak egindako liburuaz otsailean Parisen burututako aurkezpenean. Ardo ez ekologikoez –kontsumitzen ditugun gehienek– daramatzaten botiken zaporeak hautematea zen helburua: "Elikagaien zaporea alerta tresna baita guretzako eta ezin da gauza bat gogoratu aurretik ezagutu ez baldin bada".*

ez duena: "Hartzen baduzu Monsanto-ren *Roundup*, mahastietan gaur gehien erabiltzen den herbizida, %40 an glifosatoz osatuta egon arren badaramatza arsenikoa eta petrolio hondakinak ere. Arsenikoa 1974tik dago debekatuta (...) baina glifosatoak deklaratu gabe darma bere formulatan. Arsenikoa da jendeak hiltzeko diseinatutako produktua, *Zyklon B* [Bigarren Mundu Gerran naziek Holokaustoan erabilitakoa, Bayer konpainiarena] zegoen bezala. Pestizidak gerrarako gasak ziren eta horiek gaur mahastietan erabiltzen ari dira!"

Glifosatoa belar-hiltzaile bat den arren, mahastietan gero eta usuago erabilia, ardo ez ekologikoetan agertzen diren kutsagarri kimiko nagusiak funtzionatzen dira, mahastietako onddoak –mildiu eta beste– hiltzeko fumigazioz erabilitakoak. "Jendeak esaten du har-

tztitzean alkoholak desegingo dituela pestizidak, baina hori pitokeria galanta da. Botilaratuta 15-20 urte geroago ere aurki daitezke hondarrak".

Baserritarrak bere mahatsondoak xomorroen, onddoen edo belar ustez txarren kontrako tratamendu kimikoz fumigatzen dituenen ez bakarrik horietatik sortuko den ardoa kutsatzen du: ikerlarion ustez botikak ardoaren osagai bihurtzen ditu, ardo gehienek daramatzaten gehigarri.

Ikerlariok benetako ardo aldarrikatzen dute esperimentuarekin. Milaka urteko historia daukan ardo kimikak aldatu du azken hamarkadotan. Funtziona eta beste botikek mahatsak berak daramatzen lurrinak estaltzeaz gain hartitzeko prozesua eragozten dute, mahastizaina behartuz ardoa ekoizteko legami berriak eta kimiko gehiago era-

biltzera, ororen buru mahatsak dakartzan berezko ezaugarriekin denborarekin ardotan adieraztea oztopatuz.

Baina herritarrari ere lagundu nahi liokete. Nekazaritza industrialaren kutsaduraz milaka informazio ikusi arren, kontsumitzaileak produktu kutsatuak irensten jarraitzen du oharkabea. Dastaketa bateko protokoloa jarraiturik pestizida baten zaporea ezagutu duena, dio Seralini maisuak, "bere bizi guztian akordatu da. Elikagaien zaporea alerta tresna baita guretzako eta ezin da gauza bat gogoratu aurretik ezagutu ez baldin bada".

Tomateak, sagarrak, piperrak... zerk ez darma pozoirik gaur egun? Zer ahorratzen dugun ezagutzeko dastaketa ikastaro premian gaude. Industriak pozoien gustua disimulatzeke produktu berriak zabaldu aurretik. ■





**ZINKUNEGI  
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com



**50 urtez elkarrekin**

# «Euskal musikaren arkeologiak asko motibatzen nau»

Gabi de la Maza

*Kantu frango utziko diotet munduian*

Interneteko ARGIA Saria jasoa da aurten Gabi de la Mazaren *txantxangorria.eus* ataria. Gaurero 2.300 kanta euskarazkoak dira karaokean eta, inondik ere, harrera ezin hobea du. Bestalde, Youtuben daukan kanala euskarazko bisitatuena izan zen iaz.

Testua: Miel A. Elustondo

Argazkiak: Zaldi Ero

**37 urtez irakasle izana, erretiroa hartu berri zaitugu.**

Urriaren 3an jubilatu nintzen. Espainiako Estatuak Euskadiri transferitutako irakasleetakoa naiz, Eusko Jaurlaritzak lehen oposizio deialdia egin aurretik irakasle plaza ateratakoa. Pentsioa ere, adibide baterako, Espainiako Gizarte Segurantzatik gabe, Espainiako Estatu-ko aurrekontuetatik jasotzen dut nik. Lehen Hezkuntzako irakasle izan nintzen hamaika urtez, zazpi, Gorlizeko eskolan. Zortzigarren ikasturtea hastera zihoanean, eskola-idazkariak iragarki bat jarri zuen taulan: Plentziako Euskal Girotze Barnetegian lan egiteko eskaintza, plaza bakarra. Barne-lehiaketa bidez ebaztekoa zen, eta hura irabaziz gero, galtzen nuen ordu arteko Lehen Hezkuntzako.

**Lehiaketa irabazi zenuen, Euskal Girotze Barnetegian hasi zinen lanean.**

26 urte egin ditut barnetegiko lanean. Plentziakoan, hemezortzi urtez. Barne-tegien programa Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak abiarazi zuen, A, B eta D irakastereduak martxan jarri eta gero, ikasleek aisialdian euskaraz aritzeko aukera izan zezaten. Hezkuntza Saileko Euskara zerbitzuan ziren orduan Mikel Zalbide, Joxemari Berasategi, Ibon Olaziregi, Iñaki Artola... eta Agustin Mujika *Takolo*-k, barnetegi proiektua aurkeztu zien. Jaurlaritzak onartu, eta lehen barnetegi gauzatu zuten, Euban. B eredu-ko ikasleei zuzendua zen orduan, eta hamabi egun irauten zuen egonaldiak. Bost urte Euban, eta Plentziara ekarri zuten 1990ean. Hurrengo urtean hasi nintzen ni bertan.

**Gabi de la Maza Alonso**

Barakaldo, 1956

Elektronika ikasketak egin zituen lehenik, irakasle-ikasketak gero, Plentziako Euskal Girotze Barnetegian egin ditu urterik gehienak. Ikasleak motibatu nahirik hasi zen kantua baliatzen, eta teknologia berrien bidean, euskarazko 2.300 kantu karaokean jartzera heldu da. "Jaso dezala eskua Youtuben Txantxangorriaren karaokerako euskal kantaren bat sekula erabili ez duenak", Itsaso Zubiria Etxeberriaren galdera aurtengo ARGIA Sarien banaketaren kronikan.



**LOURDE**  
**TRIOND**

EZ DOK AMAIR

Nere erria

Askatasuna

zertarako

Lin-

Pan mendia

Ez gaudu

konforme

ASKATASUNAREN  
PAUSOK

### Baziren beste barnetegi batzuk ere.

Bai. Tartean, Alkizakoa eta Gaztelukoa sortu ziren. Ondoren, Aubixakoa, El-goibarren, eta Segurakoa eta Barriakoa ireki zituzten, zeinek bere ezaugarriak zituela, adin eta ereduetan. Prozesu bat gertatu zen, jakina, A ereduko ikastetxeak gero eta gutxiago ziren, B eta D eredukoak gero eta gehiago. Gaur egun, adin eta eredu guztiak hartzen dituzte barnetegiak. Gogoeta egin eta ondorio horretara heldu ginen bost barnetegiok, estu koordinatuta lan eginda.

### Euskararen erabilera sustatzea da barnetegiaren asmoa, inondik ere. Hor sartzen da euskarazko kantuen karaokea?

Hasieran, euskararen erabilera zen helburua, baina orain are gehiago da motibazioa lantzea momentuko erabilera handitzea baino. Lan-hipotesi horretara iritsi ginen, eredu batekoek eta beste-koek problematika ezberdinak zituztela konturatuta. Kantuei dagokienez, barnetegiaren hainbat jardueraz betetzen genuen eguna: ikasleek bata bestearen atzetik burutzen zituzten jarduerak, arnasa hartzeko astirik ere ez zuten. *Pressing* estua jotzen genuen, eta ikasleek euskaraz egin zezaten lortzen genuen, gu ondoan gintuztenean. Gu urrundu orduko, *pressing*-a arinduz gero, euskararen erabilerak behera egiten zuten.

### Jarduera horien artean zen euskaraz kantatzea.

Bai. Kantutegia egiten genuen, 30 kantaz osatua, eta ikasleek kanta haiek egunero aditzen eta kantatzen zituzten. Megafonian ere ipintzen genituen. Intuitiboki bada ere, pentsatzen genuen kantuak ikasleentzat euskararen erreferentzia izan zitezkeela, beraiek bizi ziren giroan, kantua aditu eta barnetegiaren izandako bizipen positiboren batekin lotuko zutelara. Hari horretatik tiraka heldu ginen motibazioa lantzerara, momentuko erabilera bultzatzerara baino. Motibazioak erabilera dakar, seguru. Motibaziorik gabe ez da erabilerarik.

### Nola lantzen zenuten motibazio hori?

Ikaslearen eta ikasle-taldearen interesak identifikatu behar genituen, talde barruko dinamikak azalera ekarri jolas bidez: nesken eta mutilen arteko harremanen nolakoa, liderrak, ikasle isolatu edota baztertuen kasua... Talde-dinamikako estrategiak erabili eta jolasak



Gabi de la Maza ARGIA Saria jasotzen 2018ko urtarrilean.

burutzen genituen. Ondoren, jolasean gertatutakoak kontuan hartu eta talde barruko harremanak aztertzen genituen. Intentsitate handiko momentuak izaten ziren, eta haietan euskaraz aritzen ziren ikasleak, batzuetan taldeak kohesionatu egiten ziren... Esperientzia positiboak lantzen genituen, euskaraz, ikasleek ere euskara bizipen positibo batekin lotu zezaten. Emozioarekin jotzen ari ginen, jakina.

### Horrek zer du ikustekorik zure kantu eta karaokearekin?

Kantuek emozionatu egiten gaituzte. Sentimenduz beteta daude. Jakinaren gainean erabiltzen genituen kantuak, bagenekien-eta ikasle horrek, barnetegitik irtendakoan, euskarazko kantua entzun eta esperientzia positiboarekin lotuko zuela. Oso kantu ezagunak erabiltzen genituen, erakargarriak, hainbat urtetan iraun dutenak.

### Adibidez?

Hertzainak-en *Aitormena*, adibidez, hogeitun urtean egon zen gure kantutegian. Itoizen *Lau teiltatu* -baina EH Sukarraren bertsioa gustatzen zitzaie ikasleei-, *Xalbadorren heriotzean*... 1991tik hona, asko. Hasieran, binilozko diskoak ibiltzen genituen. Goizean, eguraldiari begiratzen genion, biltzen genituen ikasleak, albisteak aipatzen genizkien, eta kantu saioa egiten genuen, ikasleak

eroso jezarrita eta kantutegia eskuetan zutelara. Jartzen genuen musika, eta kantatu egiten genuen. Tartean, mikrofonoa ere pasatzen genuen ikasleentzat, euren kantatzeko. Azkenean, 180 kantu inkunablen zerranda osatu genuen.

### 180 inkunabla?

Bai. Mp3a sartu zen garai berean, ETB *Kanturik onena* saioa egiten hasi zen eta hantxe atera ziren *Xalbadorren heriotzean*, *Lau teiltatu*, *Aitormena*... eta programaren amaieran jendeak gehien bozkatutako kantuen bertsioen bilduma publikatu zuten. Zenbait bertsio ez zitzaizkidan batere gustatzen. Nahiago nituen originalak. "Neuk egingo dut originalen bilduma mp3 formatuan". Eta telebistako programan aukeratu zituzten haiek hartu eta mp3an sartzen hasi nintzen. Baina haiek sartuagatik ere, espazio handia nuen CD-an. "91z gero barnetegiaren ibili ditugun kantak erantsiko ditut". Eta haiek ere ipini nituen, eta ondoren, neure gustukoak ere bai, CD hura bete arte. Azkenean, 180 kanta. Inkunabla, nire ustez, euskal kanturik onenak. Diskoa osatu eta barnetegiaren etortzen ziren ikasleentzat irakasleei ematen genien opari, eskolan kantatzen segi zezaten.



## Sope

“Koadrilarekin hasi nintzen euskaraz ikasten. Laster, batzuek ez zidaten euskaraz baino hitz egiten, Iñaki Aurrekoetxeak, adibidez. Baionan hil zen, errefuxiatuta zegoela, 1996an. Iñaki *Sope*. Lagun mina nuen. Maila ez-formalean asko erakutsi zidan berak”.

## Amets

“Hainbat urtetan, amesgaizto bat izan dut: berriro soldadutzara itzuli beharra. Ametsik gaiztoena nuen hori: izerdi patsetan esnatzen nintzen. Amets gozoa ere banuen, ordea: Arrietako eskolara itzultzen nintzela. Oso giro euskalduna zen, eta neure burua euskaraz janzten asko lagundu zidan”.

## Kanada

“Behin, disko bilduma bidali zidaten Kanadatik. Euskaldun batek. Francoren garaian, diskoei azalak kendu eta katalogoan sartu zituen, kartulinazko azal berriak eginda eta diskoen edukia boligrafoz idatzita: Pantxoa eta Peio, Labegerie, Manex Pagola, Etxamendi eta Larralde, Maite Idirin... Aparatu berria erosi eta horiek digitalizatzen ari naiz orain”.

### Ordukoa da zure karaokea?

2004 inguruan hasi nintzen kanta karaokean ipintzen, nola egin ikasi nuen. Informatika eta teknologia berrien sasoia zen, ikus-entzunezkoak furian zeuden. Ikasi nuen eta 25 kanta ipini nituen karaokean, barnetegian erabiltzeko asmotan. Baliabideak ere bagenituen, eta bideogintzan ere trebatuta geunden, hasieratik bertatik barnetegian egindako egonaldiaren bideoa osatu eta oparitzen genien-eta ikasleei. Lehenengo, mahai analogikoa eta monitorea erabiltzen genituen. Gero, ordenagailuz hasi ginen.

### Jendeak ez ohi du teknologiarik etekina ateratzeko abildaderik. Zuk ez bezala.

Hori ere esan behar nuen: batxilergoa ez ezik, elektronika ikasketak ere egin nituen. Gure etxean leku guztietan ikusi ahal dituzu telebista pantaila, ordenagailua eta beste. Teknologia berriak heldu zirenean, oso gustura hartu nuen mundu hura. Euskal musika ere, gustukoa...

### Noizdanik?

Gaztetxotan, Beatles, Bob Dylan, Neil Young, Victor Jara, Joan Manuel Serrat... horiek denak entzuten nituen. Hamasei-hamazazpi urterekin, Benito Lertxundi, Xabier Lete, Imanol -batez ere-, sartu zitzaizkidan, artean euskaraz ez nekienean.

### Euskaraz ez zenekien?

Ez, baina ordurako Bilboko Jatorki abesbatzan kantatzen nuen. Txikitan, 11 urterekin, institutuko koruan kantatu nuen. Timoteo Urrengoetxea zen zuzendari. *Agur jaunak, Boga-boga...* orduan ikasi nituen. Gero etorri zen euskaraz ikastea, Lanbide Heziketa egiten ari nintzenez. Bilbon, Santutxuko Karmelora hasi nintzen, gauez. Goizez, Elektronika ikasketak egiten nituen. Arratsalde beranduan, batxilergoko seigarren maila Txurdinagako institutuan. Gaueko hamarretan handik irten eta Karmelora, euskaraz ikastera, koadrilarekin. Bittor izeneko karmeldarra genuen irakasle, Mañarikoa ei zen.

### Orduan ikasi zenuen euskaraz.

Han jaso nituen lehen eskolak. Gero, soldadutzara joan beharra etorri zen, eta han ere euskaraz ikasten segitu nuen, Xabier Gereñoren euskara metodoarekin. Leonen (Espainia) izan nintzen soldadu, eta konpainian Bilboko hemeretzi gazte ginen. Egun batean, armairuak miatu zizkiguten, eta hamazazpi lagunek Gereñoren metodoa geneukan. Hamazazpi! Kar, kar... Soldadutzatik itzulita, taxi lanean hasi nintzen Bilbon, aldi berean irakasle-ikasketak egiten nituela.

### Hara!

Bai, bai... 22 urterekin, izen-ematea egitera joan, eta zientzietako adarrean

eman nuen izena. Idazkaritzatik irten eta eskaileretan behera nindoala, Juan Luis Goikoetxearekin egin nuen topo. Han eta hemen elkar ikusiak ginen, mugida abertzaleetan. Oso baldar hitz egiten nuen euskaraz garai hartan, baina ulertu, aldiz, dena edo gehiena. Eta Juan Luisek: “Zertan matrikulatu zara?”. “Zientzietan”, nik. Urte hartan euskal filologia adarra zabaltzekoak ziren Bilboko irakasle eskolan, eta ikasle ehizan zebilen. “Matrikula zaitez euskal filologian, jendea behar dugu. Ostantzean ez dute zabalduko”. Eta euskara mailarik ez neukan arren, idazkaritzara berarekin joan eta matrikula aldatu nuen. Euskal filologian nintzen.



2012an Gorlizko Euskararen egunean egin zioten omenaldiko txapelarekin.

### Horrek euskara hobetzea ekarriko zizun, jakina.

Dudarik gabe. Gauez egiten nuen taxi lana. Askotan, geltokian, zain, eta bertan prestatzen nituen ahozko azterketak. Euskaraz ondo zekien lagunen bati esan ikasgaia zintan grabatzeko, eta taxian entzuten nuen, belarria lantzeko. Eta musika ere bai. Hirugarren mailara iritsi nintzenez, praktikak egiteko garaian, zenbait teknikari etorri ziren hezkuntza ordezkarietatik, eskoletan euskara irakatsiko zuten irakasle bila. Tituludunak nahi zituzten, aurreko urteetan titulurik gabeko hainbat jende ibili zen-eta erakusten.

### EAEko autonomia hasierako garaia da hori.

1980ko kontuak. Orduan hasi nintzen eskolan, irakasle espezifikoko, euskara erakusten Plentzian. Ondoko urtean, ikasketak amaitu eta Arrieta-Libaoko eskolara bidali ninduten, Sollube magalean. Francoren garaiaz geroko lehen irakasle euskalduna izan nintzen. Hiru urte egin nituen han, adin guztietako ikasleak nituela: 3 urtekoak txikiak, 14 urtekoak nagusienak. Hogeita bat

## Azken hitza: Ikusiena

“TBX.eus atariak euskarazko kanalek jaso dituzten bisitak zenbatzen ditu, eta egunean, astean, hilean, urtean... gehien ikusi diren euskarazko bideoak zein izan diren adierazten du. Iaz, *txantxangorria.eus* izan zen bisitatuena!”.

.....

ikasle. Lehenengo hilabetean, gogorra izan zen, baina, harrezkero, zoragarria. Arrietatik Gorlizko eskolara jo nuen, eta barnetegira gero. Horixe izan da nire ibilbidea.

### Karaokea fortunatu artean, esan beharko dugu.

2.300 kanta muntatu ditut orain artean. Argazkiak erabiltzen ditudanean, hiru bat ordu ematen ditut kanta bat osatzen.

Bideo-klipa baldin bada, letra erantsi beste lanik ez badu, ordu bat-edo nahikoa dut. Rap-a baldin bada, hiru ordu. Irudiak, berriz, nireak dira, edo interneten bilduak. Photoshop-a ere erabiltzen dut, argazkiak lantzeko, dela koloreak aldatzeko edota bizpahirurekin muntaia antolatzeko. Azkena, Kantuzaleak elkarte-koek bidalitako bat egin dut, Nafarroan egingo duten Kantu Zaharren Eguna dela eta.

### Noizkoa da Txantxangorria ataria?

2004an ireki nuen web-gunea. 2008an, berriz, ikasurte amaierako talde batek barnetegian esan zidan: “Zergatik ez dituzu zure karaoke hauek Youtube-ra igotzen?”. Gogoan hartu nuen ideia, eta Youtubeko kanala ireki nuen:

*Arratsalde honetan* kanta igo nuen lehena. Eta, ondoren, urte hartako kanta bildumakoak igotzen hasi nintzen Youtube-ra. Laster, jendea kanta jakinak eskatzen hasi zen eta, horrekin batera, aukeratu nituen beste batzuk ere igotzen hasi nintzen. Azkenean, dinamika horretan sartu nintzen, gure “inkunableen” zerrendatik tiraka. Horrekin batera, nobedadeak. Hala ere, hor bada kontu bat: 2005ean belauneko ebakuntza egin zidaten, eta hainbat denbora eman behar izan nuen geldirik. Etxeko biniloak hartu, barnetegikoak, Irale-koak... denak hartu eta digitalizatu egin nituen, etxean, aparatuz guztiak jarrita: audio, platera, audio nahasketa-mahaia ordenagailuari konektatuta... eta eskuaren neukan euskal musika guztia digitalizatu nuen.

### Sekulako lana.

Sei hilabeteko baja izan nuen, eta horixe egin nuen denbora horretan. Eta horretan ari naiz oraindik. Euskal musikaren arkeologiak asko motibatzen nau. Baita nobedadeak ere. Kantari askorekin harremanetan naiz Facebook bidez, eta horrek ere asko laguntzen dit. ■



# Gu espainolak gara, Euskal Herrikoak

**G**ure kostaldeko harkaitzek ondo dakite zer gertatzen den urak behin eta berriz bisita egiten dizunean. Zenbait olatuk izan dezaketen eragina imajinatzea ez da zaila, handiak eta zaratatsuak baitira. Beste asko, ordea, txikiak, ia ezkutukoak izanagatik, higadura askoz handiagoa sor dezakete fereka leunen errepikapenen poderioz. Gauza bera gertatzen da asimilazio kulturalarekin. Ageriko inposizio bortitzak sumatzea erraza da, baita behin igarrita aurre egiteko txerto efektua aktibatzea ere. Alta, zer gertatzen da olatu txikiak nola, pixkanaka, sotilki, behin eta berriz aurrean pausatzen dizkiguten objektu edo balio kulturalekin? Bada, ezari-ezarian gure egiten ditugula.

Zeri buruz ari naizen erakusteko bereziki kezkatzen nauen adibide bat jarriko dut. Komunikabideek imajinario kolektiboaren eraketan duten garrantzia ezaguna da. Haiek irudikatzen dute garena. Espainiako komunikabideen etengabeko bonbardaketa kulturala gutxi ez, eta gure telebistaren, euskal telebistaren, bigarren kateak, ETB2k, haien eredu eta edukiak kopiatu eta bere horretan eskaintzen dizkigu.

Goizean Teleberrian: emakume bat erail dute Murtzian, ume bat Almerian, Madrilgo Komunitateko presidentek curriculum faltsutu du, uholdeak Cadi-zen... Riki-raka. Horraino "gure" lurraldearen mugak.

Bazkal aurretik galdera-erantzun formatuko entretenimendu saioa. Galdera-erantzunak: Chiquito de la Calzada, Rocio Jurado, Marta Sanchez, Belen Esteban, Kiko Rivera edo Julio Jose Iglesias, Eurovisionen Espainia nork ordezkatu zuen 1992an, Real Madrileko futbolari ohia, jarraitu Jose Luis Peralesen abesti honen letra, Farmacia de Guardia, Aida, Manos a la obra, El Chavo del 8... Riki-raka. Riki-raka. Riki-raka.



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

Gure telebista publikoak, euskara eta euskal kultura bultzatzeko helburuarekin sortu zen hark, bere kate arrakastatsuen espainiar erreferentzialtasuna lantzeko baliatzen du. Gaztelania hutsean izatea eta euskararen presentzia hutsaren hurrengoa izatea gutxi ez, eta espainiar kultura dominantea asimilatzeke makinariaren parte da ETB2

Arratsaldean eztabaida politikoa. Gaiak: Madril, Madril, Madril eta denbora geratuko balitzaigu, Madrilgoari buruz euskal alderdiek esandakoari tartetxo bat. Bide batez, Espainiako beste telebista kateetan ondu eta gizendutako kazetariekin konexioa egingo dugu; haien iritzia askoz prestigiotsu eta fidagarriagoa baita, lehen-lehen mailako metropoliko fitxaketak. Gurean ez dago hauen mailako profesionalik. Riki-raka.

Gaueko *prime time*-ko saioa iritsi eta Espainiako kate arrakastatsuek hauspotutako Espainiako komunitate autonomo bateko, Kantabriako, presidente mediatikoa da elkarrizketatua, hark dioena beti baita interesgarria. Ondoren, monarkia hizketa gai, Espainiako Koroa eta Errege Etxearen gorabeherak; Letizia vs. Sofia, zein nahiago. Riki-raka. Riki-raka.

Gure telebista publikoak, euskara eta euskal kultura bultzatzeko helburuarekin sortu zen hark, bere kate "arrakastatsuen" espainiar erreferentzialtasuna lantzeko baliatzen du. Gaztelania hutsean izatea eta euskararen presentzia hutsaren hurrengoa izatea gutxi ez, eta espainiar kultura dominantea asimilatzeke makinariaren parte da ETB2. Gogorra egiten zait niri ere hain gordin idaztea.

Gero eztabaidatuko dute alderdiek bakoitzari Teleberrian eskaintzen zaion minutajeari buruz, sozialki eta politikoki eragin askoz handiagoa duten nortasun kulturala eta erreferenteak oharkabean irensten ditugun bitartean. Gure telebistak audientziaren aitzakian balio horiek lantzen dituen bitartean, alferrik izango dira euskal marko bat ezarri nahi izateko ahaleginak eta euskal kulturak oihartzuna ez lortzearen ondorioz botatako aieneak. ■

# Zizelkan

**D**amutu naiz milatan baina han gelditu zen hanka, sartuta. Eskultoreak obra ezarri nahi zuen Santa Klaran, ezkerretara Chillida, eskuinetara Oteiza eta erdian berea, arraunlariaren omenez. Berez eskultura den Santa Klararen gainean beste eskultura bat. Ez nuen ezetz borobila, zegokion bezala, esateko kemenik izan, dirurik eza jarri nion aitzakia. Arerio politikoez berehalakoan harrapatu ninduten, ez zintzo jokatzuz baina. Eskultura jartzearen alde agertu ziren guztiak, hemendik Fisterrara bitarteko estropalari talde guztiak eta Alde Zaharreko soziedade, elizak ez dakit, guztiak. Zein ez? *Kaja de ahorrosa*, aldundia eta kristo. Bakarra nintzen, hala zioten, arraunlarietara omenez egin nahi ez niena, haien garrantziaren oroimenaren aztarnarik nahi ez nuena, proskrito madarikatua.

Futbolekoak dira besteak, Anoetako atarian dauden bi horiena. Bata "kirol indarkeriarik ezaren aldeko sinbolo gisa Donostiako hiriari" opari egindakoa, gaur Aitor Zabaletaren omenezko zat hartzen dena, Partidu Popularreko kirol zinegotziak, kotxea bazterrean aparkatzen duenak bezala, inori ezer esan gabe ezarri zuen. Ez zen nire ardurara eta isildu egin nintzen. Isildu nintzen bezala Alberto Ormaetxearen edo Rea-



**Ramon Etxezarreta**

PSE-EE-KO KIDEA

@retxezarreta

**Bakea, bizikidetzaz, adiskidetzaz, biolentziaren amaiera eta behin betirako ukazioa. Ez dute ulertu zenbaitzuei metafora mingarria gertatu izana. Zail egin zaie ulertzea zergatik ez zaien ekimena onartu**

lak irabazitako txapelketen oroimenezkoaren kasuan. Inolako eztabaidarako aukerarik gabe orduan ere eta, Kutzak, gure kultur gidari gorenak diruz lagundua. A zer-nolako bi zuldar hiriaren

azaletan. Intentzio onenekoak izango dira pieza biak, baina bai arbitrarioak eta itsusiak. Artistei aukera berdintasuna eskaini izan bazitzaie, oroimenek askoz hobera egingo zuketean luzez, hiriaren eta guztion mesederako.

Baionan Roland Barthes parkean, auskalo non eta zertan buka dezakeen, ezarri diguten *Arbolaren Egia*-k eragin dizkit aurreko oroitzak eta burutazioak. Asmo on deklaratuko lana da, Koldobika Jauregiren aldetik eta Baionako udal ordezkari politikoaren aldetik. Bakea, bizikidetzaz, adiskidetzaz, biolentziaren amaiera eta behin betirako ukazioa. Ez dute ulertu zenbaitzuei metafora mingarria gertatu izana. Zail egin zaie ulertzea zergatik ez zaien ekimena onartu.

Asmo herritar legez, proposamena, gutxi asko, batzuenak bakarrik izan ordez guztionak izateko, eztabaida publiko bat eragin balitz, proposamena eta kokapena erabakitzeko, lehiaketa publiko bat egon balitz aukera berdintasuneko artista aukeratu ahal izateko, eta asmo onak baino prozedura zuzen eta justu baten aukera egin izan balitz, izan zitekeen eskultura ezarri dena baino askoz itsusiagoa. Baina inoiz izango ez litzatekeena da gure praktika okerren metafora. Eta dena. ■

**Ogiaren egia**

**Galparsoro OKINDEGIA**

Ogi biologikoak  
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak  
Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

**LUAarkitektoak**

hirigintza  
hirigintza aholkularitza  
udal planak  
urbanizazioak  
peritazioak  
balorazioak  
etxebizitza proiektuak  
birgaitzeak  
barne diseinua...

Río Arga Kalea 28, 31014 Iruña  
Tel 948 13 26 97  
lua@luark.com

**MARCOS**  
*okindegia*

**Benetako antzinako ogia**

© 943 450 966  
Ubarburu pasealekua, 113  
Astigarraga (Gipuzkoa)

## Letragabe



Aingeru Epaltza  
IDAZLEA  
@AEpaltza

**E**lkar fundazioak euskaldunon kultur kontsumoaren gainean egin duen azterketak harrotu ditu bazterrak. Harritzekoa, kontu zaharra baita euskal kulturaren egoera barnetik ezagutzen duen edonorendako. Berria, izatekotan, datu hotzek oraingoan izan duten oihartzuna izan da. Niri, bederen, ez zaizkit hain txarrak iruditu. Egiazkoak izatera. Euskaldunen %22,9 -180.000 lagun ia- euskarazko ohiko liburu irakurle? Zein isilik zeukaten euskal argitaletxeek!

Ni Elkar fundazioarekin bat: euskal ekoizpena gizarteratzeko "politika eraginkorragoak" behar dira. Politika horiek zein diren asmatzea da kontua. Ongi daude irakurzaletasuna bultzatzeko kanpainak, baina ez dira aski panorama iluna argitzeko. Euskal kultur ekoizpenaren kontsumo urria egiturazko arazo bat da, eta halakotzat hartu behar lukete instituzioetan nahiz instituzioetatik kanpo hizkuntza politikak diseinatzeko eta bultzatzen dituztenek. Zuzenean eragiten dio hizkuntzaren erabilerari eta hizkuntzaren kalitateari, erran nahi baita, haren iraupenari.

Erdal itsasoaren erdian, euri tanten pare da gure ekoizpena. Hura bistaratzek izan behar luke politika horien ardura nagusietariko bat. Gure lurraldeen instituzionalizazioak bi tresna sortu ditu, bertzeak gutxietsi gabe, hizkuntzaren mesede: Hezkuntza sistema eta Euskal Telebista. Hagitzez ere gehiago eskatu behar genieke batari nahiz bertzeari.

Irakaskuntzan, premiazkoa da Euskal Hizkuntza eta Literaturaren curriculum a goitik behegi ipurdikatzea, lehen mailetatik batxilergoeraino. Konplexu mimetikoak bazterrean utzi, eta edukiak erabat aldatu, delako irakasgaia euskal ekoizpenaren erakusleho gustagarria izan dadin. Aditz sintagma gutxiago, eta josteta eta irakurketa atsegingarri gehiago. Pelikulak, bide ekoizpenak, kantak, musika. Hizkuntzaren besta, ez hitzen hilerria.

ETBk ere burua berrasmatu behar du, euskaldun arruntak berriz ere izan dezan estandar kulturen erreferentzia. Kontua ez da esatari guztiak Amonarriz edo Euzkitze bilakatzea, estandar horri bere leku naturala ematea baizik, hedabide honek lotsagarriki abandonatutako alor batean: telesail eta filmen bikoizketa.

Horien aldean, ur handiegiko afera dirudi euskalduntasunaren irudiari eman beharreko astinduak, baina noizbait heldu beharko zaio horri ere. Duela mende bat bezala eta molde desberdinetan agertuta ere, baserritakeria letragabea dugu oraindik euskaldun agertzeko eredu jatorra. Txunditzekoa da zenbat giron euskaldunena ez den inoiz irakurriena edo jantziena izaten, astakirtenena eta oiho gehien egiten duena baizik. Duela mende bat, bederen, halako jendeak gauza ziren hiru esaldi elkarrekin lotzeko. Orain ezta hori ere. Neobaserritakeriak bizi gaitu. Baita hil ere. ■

## Lotsaz eta larderiaz



Edu Zelaieta Anta  
IDAZLEA

**B**adu euskarak begirunea eta beldurra era naturalean uztartzen dituen hitz bat: larderia. Izan ere, eremuaren edota hiztunaren arabera, beldurrarekin edo begirunearekin lotuago egon daiteke. Nolanahi ere den, badirudi larderiak, hitza ongi erabilia bederen, betiere nagusitasuna adierazten duela. Nagusitasuna, baina, modu positiboan edo negatiboan uler daiteke, beste hamaika kontu bezalaxe.

Bestalde, lotsa handirik erakutsi gabe, lotsa bera da batzuetan larderiatik hurbilxko egon daitekeen hitza. Izan ere, euskararen ekialdeko zenbait eremutan, lotsa, larruaren pigmenta-

zioan eragile zuzena izateaz gainera, beldurraren pareko ere bada. Hala sortua ematen du, besteak beste, esaera zaharrak: lotsa denari malda guztiak otso.

Eta lotsaz eta larderiaz aritzen gara maiz aski, hitzen ahal semantiko osoan, munduaren egungo egoeraz aritzen garenean. Bi adibide ezagun emate aldera, Frantziak, Erresuma Batuak eta Ameriketako Estatu Batuek berriki adostutako Siriako bonbardaketa justiziazkoa edota Kataluniako prozesuaren harira Espainiako Gobernua egiten ari den inposizio demokratikoa. Lotsaz eta larderiaz, bai: ardiez, artzainez eta otsoez. ■

# Estatuaren teoria eta praktika

## Espainiako Erresuman

**E**spainiako Erresumari kontu eskatzen zaio Nazio Batuen Erakundetik, ea Giza Eskubideekiko nazioarteko konpromisoak eta itunak modu egokian betetzen ari den jakiteko. Gai hau izan dugu aztergai joan den astean Sarrikon, EHUko master interesgarri batean. Master horretan azaldu beharrekoa prestatzean, aukera izan dut trantsizio prozesuaren berrikuspen pertsonala osatzeko, eta hona hemen ondorio batzuk.

Indarrean dagoen Estatu hori, Espainiako Erresuma deitua, aurreko gorputz mardularen neurrira ebaki eta jositako trajea da, eta ez patroï unibertsalaren (Zuzenbide Estatuaren) arabera egindako jantzia. Hain zuzen ere, 1969-1979ko hamarkadan hartu ziren gorputzaren neurri zehatzak (erregea izendatu, Estatuaren muin ukiezinak zehaztu eta adostu, traje itxuraberritua osatu...). Hau zen operazioaren atal nagusia, eta delikatuena ere bai; horretan aritu ziren trebe, jostun ofizioan, Adolfo Suarez eta Estatuaren zerbitzura ziren zenbait aditu. Zutabe nagusi ukiezinak: Espainiaren batasuna, monarkiaren instituzioa, erregea eta biolentziaren patrimonio eskusiboa Estatuaren esku egotea. Hortik aurrera, eszenatokia moldatu egin behar zen, Zuzenbide Estatuaren ereduaren pareko agertzeko beste. Mailakatu egin ziren alderdien legeztatzeak, asmatu ziren menpe gordetzeko moduko autonomia ereduak, eta azken fasean, Espainiako Erresuma nazioarteko eskubide sistematan txertatzea burutu zen, 1977. urtean NBERen Nazioarteko Itunak onartuz, eta 1986an Europar Batasunean sartuz.

Espainiako Erresumak ez ditu inoiz barneratu Zuzenbide Estatuaren oinarritzko arauak. Nahikoa zitzaion traje itxurosoa jarrita, Europako zein Nazio Batuetako klub bi horiek estatuen klub eskusiboa bezala funtzionatzen zuten



Karmelo Landa

HISTORIALARIA

@karmelolanda

Espainiako Erresumak ez ditu inoiz barneratu Zuzenbide Estatuaren oinarritzko arauak. Nahikoa zitzaion traje itxurosoa jarrita, Europako zein Nazio Batuetako klub bi horiek estatuen klub eskusiboa bezala funtzionatzen zuten bitartean. Baina izaera demokratikoa proban jarri behar izan duenean, Espainiako Erresumaren traje berrituari josturak lehertzen ari zaizkiola ematen du

bitartean. Baina izaera demokratikoa proban jarri behar izan duenean, Espainiako Erresumaren traje berrituari josturak lehertzen ari zaizkiola ematen du. Kurioso da, zehatzago begiratuta, nondik ari diren apurtzen hariak.

Europako Kontseilua eta Estrasburgoko Giza Eskubideen Epaitegia neu-

tralizatu egin ditu Espainiak (aurkako sententzia eta ohar batzuk gorabehera), estatu aliatu batzuen kolaboraziorik eta epaile menpekoak hautatzeari esker. Aldiz, Europako zenbait estatu zehatzetan arazo larriak plazaratu zaizkio Espainiari, eta botere-banaketan zein sistema demokratikoaren oinarrietan dituen pitzadura larriak bistan utzi ditu.

Dena den, Nazio Batuen Erakundean gerta dakioko Espainiako Erresumari krisirik larriena. Batez ere, 1977. urtean, trantsizioaren une esanguratsuan hartan sinatu zituen Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren hariarik. Izan ere, azkenaldian Espainiako Estatuan gehien zolitu diren gatazken biktima eta subjektu ugariak, izan gizabanakoak edo kolektiboak, Nazio Batuen Erakundeko atal horretara zuzentzen dituzte beren demandak, eta ez Estrasburgoko Epaitegira, lehen azaldu ditudan arrazoiengatik. Eta asmatzen ari dira, ene ustez, babesa lortzeko aukera badutelako bide horretan. Izan ere, Espainiako agintariak ez dute NBERen aurrean aurkezten diren demanda horiek geldiarazteko argudiorik ez modurik. Nazioarteko Itunok eskubide banakoen zein kolektiboen arautegi zehatz eta aurreratua dakarte, hasi autodeterminazio eskubidetik eta jarrai adierazpen askatasuna, atxiloteta eta funtsik gabeko kartzelaldia, edota genero eskubideak zein eskubide sozialak. Ezin dira, gainera, "kanpoko" lege arrotz kontsideratu eta bete gabe utzi. Sinadura unetik barne-arau bihurtzen dira, eta barne-lege proiektu gaitetik kokatzen dira Estatu hierarkian. Gainera NBERen erabakiak arlo horietan ez dira Estatuaren menpeko epaileen esku geratzen. Genevan bertan NBeko aditu independenteek hartzen dituzte erabakiak. Bide honetatik badator zerbait... ■

Alberdi EUSKAL  
ARTISAUTZA

# MAKILA



OPARI BEREZIETARAKO · PERTSONALIZATUAK · PREZIO AUKERA DESBERDINAK

**Makila  
tradizionala**  
Gaztainondo/Letoi

**Makila  
tradizionala**  
Mizpirondo/Letoi

**Makila  
tradizionala**  
Mizpirondo/Alpaka

**Makila  
tradizionala**  
Mizpirondo/Zilar fina

**Ohorezko  
Makila**  
Mizpirondo/Alpaka

**Ohorezko  
Makila**  
Mizpirondo/Zilar fina



 ARGIA

ESKAERAK: [www.argia.eus/azoka](http://www.argia.eus/azoka) | © 943 371 545



# ZAD

**Erresistentzia beltza eta koloretsua**



Bretainiako Notre Dame des Landes-eko aireportuaren aurkako borroka luzea da, ia 50 urtekoa. Ingurune natural nasaia suntsituko zuen proiektua geldiaraztea lortu dute ekintzaileek. Garaipen historikoa da inondik inora, baina horrekin batera gerra deklaratu dio Frantziako Gobernuak hainbeste urtez ZADen eraikitako bizi-proiektu komunalari. Gaur gaurkoz Macronek bidalitako 2.500 jendarmeek ez dute lortu erresistentzia gunea desegitea. Itziar Bardajik egunotan ZADen ikusi eta bizi izandakoa dakarte ondorengo orriek.



**Itziar Bardaji Goikoetxea**

ARGAZKIAK: ENARA FORTES

Notre Dame des Landesko ZADera iritsi naiz apirilaren 13an, ostiralean, operatibo polizialaren bosgarren egunean. Goizean Loire Atlantique-ko prefetaren deklarazioaren berriak esnatu nau. Astelehenean hasitako kanporaketak bukatutzat eman dituzte: 40 gune hustu (desalojatu) eta eraisteko agindua zuten jendarmeek, haietatik 29 hustu eta suntsitu dituzte. Halere, ZAD honetan emango ditudan lau egunetan poliziaren presentzia eta zadisten (horrela esaten zaie hemen daudenei) konfrontazioa konstantea izango da. Errepideak garbituko dituzte eta berreraikitze saiakera oro ekidin. Negoziaketak eta prefekturaren deklarazioak urrun geratzen dira, gas negar-eragilea eta helikopteroaren zarataren atzean lauso.

### Gas negar-eragilea

Ostiralean bertan probatu dut gasa. Azkurak begiak erretzen du eta ezin dut arnasarik hartu. Larunbatean ere, igande, astelehenean. Gasa. Lokatza. Gasa.

Granaden zarata, izua, adrenalina. Gasa. Helikopteroa, dronea. Gasa.

2.500 polizia mobilizatuak izan dira. Tanketak, bulldozerrak, ura presioan botatzen dituzten kamioiak ere bai. Zadistek barrikadak eraikitzen dituzte poliziari bidea mozteko: pneumatikoak, metalezko xaflak, egurra, bizikletak, gas bonbonak, kotxeak, edo kotxe izandakoen arrastoak, denetarik. Poliziak desegin eta berriz eraikitzen dira hamaika aldiz. Harriak eta bestelakoak botatzen dizkiete poliziei, edo gas pastillak itzuli, horien edo ezkutu artisau bitxien atzetik. Gas negar-eragileaz gain, Poliziak granada zaratatsuak botatzen ditu. Benetan arriskutsuak dirudite. Ikusi dut nola goratzen den lurra, geratzen diren zuloak, eragiten duten odola.

### Barrikadetan

Larunbatean ikasi dut barrikada atzeko giroa. Batzuk aurre-aurrean, mota guztiko maskara eta betaurrekoaz babesturik. Apur bat atzerago, bere presentziaz erresistentzia egiten dutenak, lekuko,





aurrekoen babes eta babesten denaren adierazle. Eta lakrimojen eraginak arintzeko limoia, almax-a, kolirioa... Han eta hemen.

Handik metro batzuk aldentuta, ezusteko lasaitasun batek harritzen nau. Estatuaren eta bere kontroletik at geratu den mundu txiki honen arteko guda honen atzeguardian lan eta lan ari da beste pertsona pila bat. Bigarren gudaroste honen beti du kafea prest, beti dago jateko zer edo zer eta erizaintzarako materiala ez da inoiz falta. *La Wardine* eta *Foisses Noires* bezalako gune seguruagoetan, eraitsi beharreko eraikinen zerrendan ez daudenetan, sukaldea etengabeko mugimenduan dago, ZADeko *radio klaxon*-ek informazioa eta musika tartekatzen du eta afalduan giro onean elkartzen da jendea eguneko balorazio eta asanblada orokorra egiteko. Proporzioak idealizatu ezin badira ere, barrikadan neskek aurpegia estaltzen duten heinean sukaldean gizonezkoak ere ugari ari dira lapikotan.

Arratsaldean Nantesen deitua da ZADen desalojo saiakeraren aurkako elkarta-

» **ZAD-EN KOMUNIKATUA:**  
**“Gatazka eraldatu egin da eta dagoeneko ez da azpiegitura suntsitzaile proiektu baten aurkakoa, bizi garen lurraldea elkarbanatzeko baizik. Leku hau zementuz estaltzea ekidin genuen eta bere etorkizuna zaintzea dagokigu”**

sun manifestazioa. Izugarriko jendetza eta aniztasuna. Adin eta janzkera orotako gizon emakumeekin nahasten dira silueta beltz maskaradun eta kaputxadunak. Berriz ere istilu itzelak eta errepresiorako baliabide erakustaldi ikusgarria. Konfrontazioa aukeratzen duten manifestarien aldetik ere, Hego Euskal Herrian urtetan ikusi ez direnak, urtetan ikusiko ez direnak, akaso. Zizel eta mailuz lurteko galtzada-harriak apurtzea normalizatuta dagoela dirudi, eta esango nuke Poliziari harriska ibiltzea ez dutela gaizki ikusten manifestazioa lasaiago hartzen dutenak. Aireportuaren aurkako borrokan, nahiz helburu horri jarraiki zonaldean bizitzera geratu diren aldarrian, hots, bertan geratzeko eta lurak lantzeko zilegitasunaren defentsan, gatazkari heltzeko modu guztiek bere tokia topatu dute, besteen manerak errespetatuz. Estrategia legalistak; ekin-tza zuzena; erasoak poliziei; ekimen baketsu, irudimentsu, artistiko eta estranbotikoak. Dena nahasten da ekosistema berezi honetan.



## Aireportua ez da egingo

Metodo hauen guztien konbinazioak lortu zuen pasa den urtarrilaren 17an Edouard Philippe lehen ministroari aireportua ez zela egingo esanaraztea. 50 urteko borrokaren garaipen historikoa. Eta horrela jaio zen desjabetzeen bitartez estatuaren jabetzapean geratu diren 400 baso eta landa hektarea hauekin zer gertatuko ote denaren galdera. ZADen azken urtetan bizi izan direnek argi aldarrikatzen dute erantzuna ematea beraiei dagokiela, hala adierazi dute komunikatu batean: "Gatazka eraldatu egin da eta dagoeneko ez da azpiegitura suntsitzaile proiektu baten aurkakoa, bizi garen lurraldea elkarbanatzeko baiduz. Leku hau zementuz estaltzea ekidin genuen eta bere etorkizuna zaintzea dagozkigu". Frantziako Estatuak ez dago hori onartzeko prest eta, legea eskuan, ZAD husteko lehenengo pausoa izan da apirilaren 9ko astean barrena eraikin irregularren eraistea, hilabeteko iraupena aurreikusia duen operazio polizialaren markoan.

## Nantestik La Gree-ra

Larunbat gauean, Nantesetik itzuli ondoren, *La Gree*-ra goaz lotara. Gune honetan ZADeko asterokoa inprimatzen da, bizikleta tailerra zegoen eta grabaketa estudio bat. Gaur pizzak egin dituzte eta ZADeko dokumental bat pasatzen ari dira. Baina nik ez dut horretarako gogorik, hainbeste begitan ikusi dudanekeak ni ere harrapatu nauela konturatu naiz. Lozaku azpian manta pare bat, dohaineko dendan hartu ditugun arropa batzuk eta esterila soilik ditudan arren, aterpetzen gaituen ukiulu ohia- ren atzealdeko musika eta solasak ez dit loa kentzen.

Biharamunean, igande goizean, norbaitek, presaka bota lokaztuak lotzen dituen bitartean, egoeraren berri eman du. Frantsesa eta loa gainditzea lortzen ditugunean ulertu dugu Poliziak ZADeko gune gehienak inguratuak dituela, hau barne. Gaurko deialdia aste hasieratik dago egina. Eraispenei erantzuna: berreraikitzea. 2012ko kanporaketa saiakeraren ondoren izan zen moduan, auzolan masiboa egin nahi dute. *Le Gourbi*-n etxe baten egurrezko estruktura eraikitzea lehenetsi da, 2012ko berreraikuntza horretan, hain zuzen, eraikitako gune sinbolikoa delako. Bertan egin izan da astero *non-marché*: ez



ZADeko kideek salatu dute kale liskarretarako material militar gogorra ari direla erabiltzen Frantziako poliziak. Tartean, ke negar-eragilea zabalitzen dutenak eta ezta darenekin hurbil harrapatutakoei gorreriaz gain zauri larriak ere eragiten dizkietenak.

## DEMOKRAZIA BALITZ...

Lehenengo astean barrena Poliziak burututako ekintzetan bi milioi euro gastatu dituztela esan zuten zadistek. 2.500 jendarmeren soldata, haien lo eta jana, helikoptero hegaldi ordu mordoa eta industria armamentistikoaren mesederako gastatu diren milaka negar-eragileak, zaratara-granak eta abar... elkarrekin jarrita eta gatazka hau beste hiru astez luzatuko dela aurreikusiz, zenbakia txiki geratzen zait.

Estatuek herritarren dirua nolako lotsagabekeriaz xahutzen duten albo batera utzita, har dezagun aintzat Frantziako Estatuaren operatibo honen munta.

Eta pentsa dezagun, aldiz, non ikus dezaket den demokrata autodenominatuek tamaina bertsuko mehatxurik.

Notre Dame des Landesko aireportuaren aurkako mugimendu lokalak 2009an publikoki egin zuen deialdia: desjabetutako etxe hutsak okupatu eta aireportua eraiki behar zen zonaldera bizitzera joateko gonbitea. Horrela sortu zen ZADa: Zone A Défendre.

Azpiegitura erraldoiaren aurkako borrokarekin batera, bizimodu kolektiboa garatuz joan da geroztik. Estatuaren, legalitatearen kontrolatik kanpo modu autonomo eta koordinatuan 80 bat kolektibo eta lantaldeen sare lausoak autogestioa ehuntzen du, 300 pertsona inguruk burujabetza esperimentatzen du. Saiakera-errore prozesu jarraitua da prekarietatean, kolektibotasunean eta kapitalismoan jaio garenontzat. Beso azpian dauzkagun ezagutza eta tre-

bezien urritasunak sortutako arazo konplexuei, frustrazio eta gogobetetasunaren arteko oreka galdu gabe, aurre eginez, edo saiatuz. Behin betiko krisialdian dagoen mundu honi agian zerbait eskainiko diotela uste duten 300 pertsona. Ez hiru milioi. Ez hirurehun milioi. Hirurehun norbanako, inposatzen zaien sistema gustuko izan ez eta hortik kanpo bizi nahi dutenak.

Horrelako gune askatu batek duen babilioa eta indar eraldatzailea kolokan jarri gabe: zementuzko mundu grisaren arrakala batetik kotiledoia ireki berri dituen belar txikia bota militar zatar batek zapaltzen du. Irudia ez da oso originala, baina bai adierazgarria. Demokrazia balitz, belarrari hazten utziko lioke, zein landare den ikusteko.

-merkatua. ZADeko kolektibo ezberdinek ekoiztutakoa (barazkiak, gazta, ogia...) bertan partekatzen da prezio librean, hau da, bakoitzak libreki hartzen du nahi duena eta libreki uzten du nahi duen ordaina; ZADen beti egiten den bezala.

Goizaren parte bat *La Gree*-tik atera ezinean eman dugu. Berreraikuntza oztopatzeko, bideak garbitzeko eta zadistek irekitako zangak konpontzeko jendarmek ez dute ZADen barna mugitzen uzten. Poliziak txanda aldaketa egin duenean kordioak apurtu dira eta kanpotik 10.000 pertsona auzolanera datozela entzun dugu. *Wardine*-rantza goaz, hura ikustera. Gurutzatu behar dugun errepidean dauden jendarme furgoiak ezin ditut kontatu. Hogeita hamar al dira? Tanke bat, ura presiora botatzen duten kamioi bi eta robokop itsurako gizonak han-hemenka, kasko, ezkutu, askalot zein motako arma eta bestelako tramankuluz hornituta. Bideojoko baten barruan sentitu naiz basoan zehar ezkutuan eta korrika ibili garenean beste aldera furgoi guztien atzetik pasatzeko. Geroago jakin dut ez dela jolasa, horretan ari zen tipo bat lurrera bota eta jipoitu dute.

Pasa den udan Euskal Herritik iritsitako hamarnaka pertsonen laguntzaz eraikitako *Ambazada*-ra iritsi garenean, berriro ere harridura. Giro alaia, koloretua, adin eta itxura gutzietako jendea.

» Nahi adina eraikuntza behera botako du Poliziak, baina gune zabal honetatik zadista guztiak kanporatzea eta berrokupazio saiakerak ekiditeko moduko presentzia poliziala mantentzea ez zaio Emmanuel Macron presidenteari erraza izango

» ZADeko kolektiboek ekoiztutakoa (barazkiak, gazta, ogia...) partekatzen dute prezio librean, hau da, bakoitzak libreki hartzen du nahi duena eta libreki uzten du nahi duen ordaina

Batukada bat han. Gitarra bat hemen. Batzuk larrean eserita, besteak dantzan. Nafarroa Oinez dirudi honek. Metro batzuk aurrerago kordio poliziala larre baten zabalera osoan. Jendarmeak serio, isilik, ortzi-mugara begiratzen saiatzen dira. Ia guztiak ari dira parean duten manifestari baten monologoa jasaten. Minutu batzuk geroago benetako bataila bat. Poliziak gasa eta granadak "konfeti bailitz" bota ditu lau edo bost orduz. Zelaira begiratu eta gas laino bukaezina. Atzera biratu ta eraiki nahi den etxearen teilatua dantzan, jendetzak helmugara daramala. Gauean egin da garraio honen bukaera, jendarmeak ZADetik kanpo ondoko herrietako hoteletara bueltatu direnean. Garaipena giroan.

Eta astelehen goizean, *déjà-vu*-a: *Le flics sont ici*. Barrikada, granadak, kolirioa, harriak, tanketa. Aurreko egunean eraikitako *non-marché* berria suntsitua. Bazkari goxo giro onean. Gaurko nobedadea, eguzkia.

Iritsi zaigu Euskal Herrira bueltatzeko momentua. Zaila egiten zait honen bukaera irudikatzea. Nahi adina eraikuntza behera botako du Poliziak, baina gune zabal honetatik zadista guztiak kanporatzea eta berrokupazio saiakerak ekiditeko moduko presentzia poliziala mantentzea ez zaio Emmanuel Macron presidenteari erraza izango. ■

# Hiru belaunaldi, muturreko lurraldean harrapatuta

Bederatzi egun motz gera daitezke lau hamarkadako korapiloaren muina ulertzeko. Saharrek 42 urte daramatzate Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpalekuetan bizitzen eta hango errealitatea ezagutzeko asmoz 88 zumaiar bertaratu dira, Darahli Elkarteak antolatutako bidaiari. Auzolanean, bi herrien arteko elkarlana bideratzea eta 16 urteko ikasle euskaldunek ikas-esperientzia aberasgarriaz gozatzea da helburua. Haiekin bidaiatzeko aukera izan dut.



**Miren Osa Galdona**

@Mirentx\_U

ARGAZKIAK: PEIO ROMATET

Lehen zirrara bidaiari hasi ahala senti daiteke. Bihotza uzkuertzeko moduko paisaia da kanpalekuetakoa. Ezkerrera nahiz eskuinera begiratu gero, begien aurrean dagoena nekez aldatzen da: harriz eginik dauden etxe baxuak, oihalezko haima ederrak, izorratutako autoak eta hondarra. Kolore marroiak zeruaren urdin argiarekin kontrastea egiten du. Eguzkiak gogor jotzen du eta itzala ura bezain preziatua izan daiteke. Lasaitasuna nabari da, jendea patxadaz joaten baitzaizkio minutuak. Umeez irribarretsu agurtu gaituzte eta emakumeek etxeko atean zabaldu dizkigute. Lehen begi-bistakoan ulergaitza zaigu hondargunea bizitoki

izan daitekeenik; bederatzi eguneko bidaiari, azalak ezkututzen duena ezagutzeko parada eman diezaguke.

Aisha lau anai-arrebetatik gazteena da. 14 urte bete berri ditu, ikasle fina da eta ez du aparteko afiziorik. Azal leuna du, begi distiratsuak eta ile indartsua. Noizbehinka zapi bat darama buruan, baina oraindik ez du ohikoena. Udako oporraldia dela eta, duela hiru urte Kataluniako familia batekin pasa zituen bi hilabete, eta urtebete geroago Avilako herrixka batean izan zen. Gaztelaniaz ederki moldatzen da eta lehen egunetik bere familiaren eta gure arteko itzul-tzaile titulua eman diogu, hassanieraz



eta euskaraz nekez ulertuko baikara. Zugereko Dairan jaio zen, Ausserdeko Wilayan, Aljeriako ipar mendebaldean; saharar errefuxiatuen kanpalekuetan.

Tea hartzen ari garena kontatu dit, oro har, Zugen bizitzea ez duela gustuko. "Eskolara joatea gustatzen zait, baina hemen bizitzea ez. Ez dago ezer eta beti berdina egiten dugu. Nekagarria da hemen bizitzea". Teari tragoxka bat eman diot, hitzok barneratzen lagunduko didan esperantzaz. 14 urterekin gordintasun horrekin hitz egiten duenak aspaldi utzi zion haur izateari.

Handitan erizaina izatea gustatuko litzaiokeela aitortu dit, baina jakitun da



oso zaila izango dela. Kanpalekuetan ez baitago unibertsitaterik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza arteko ikasketak jasotzen dituzte eta goi mailako ikasketak lortzeko bidea atzerrian dago. Nazioarteko laguntzarik edo beka berezirik ezean, datozen urteak etxean igaroko ditu, “amari laguntzen-eta”. Eredutzat du ama. Borrokatzeko esan diot, neska azkarra dela eta lortuko duela. Beste aldera begiratu du. *Zer ote daki Mendebaldeko neska zuri honek borrokatzeaz* galdeginez bezala bere buruari.

Aishak, familiako gainontzeko guztiek bezala, odolean darama borrokatzeko

grina. 42 urte daramatzate sahararrek Tindufeko errefuxiatuen kanpalekue-tatik euren herria berreskuratzeko borrokan; Marokok Mendebaldeko Sahara okupatu eta indarrez kanporatu zituen, makina bat herritan giza eskubideak errotik urratuz. Aljeriako ipar-mendebaldean aurkitu zuten babesa eta emakumeak arduratu ziren ezerezetik herri berri bat eraikitzeaz: oihal zatiekin eta makila pusketekin eraiki zituzten lehen etxeak eta harreman horizontala eraiki zuten, zaintza eta elkarlana erdigunean jarritz. Gaur gaurkoz, kalkulatzen da 150.000 lagunek esperoan jarraitzen dutela basamortuan.

### Bestearen lekuan jartzea

Darahli Elkarteak hamabi urte daramatza Zumaiako gazteei errealitate hura hurbildu nahian. *Darahli* hitzak eskada esan nahi du hassanieraz eta bi kulturen artean sortzen den konexio berezia ezin hobeto islatzen du. 16 urteko ikasleak izaten dira bidaiaren protagonistak. Abentura, hiru urteko ikasketa prozesu baten amaiera dela kontatu du Ibon Ibarguren irakasle eta koordinatzaile nagusiak, bidaiak zuzenean interpelatzen zaituen arren, aurretik tes-tuingurua ezagutzea funtsezkoa baita. Bidaia oso garestia da eta ekonomiko-ki bideragarria izateko diru-laguntzak



eskatu behar dituzte, horrek dakarren ardura guztiarekin. Alabaina, behin kanpalekuetako hondarra zapaltzean, zama aise arintzen dela onartu du. “Sentitzen dudan bizipoza edozein arrangura baino indartsuagoa da”.

Irakasle gisa, garrantzitsua iruditzen zaio ikasleak sahararrek transmititzen dituzten bizipen eta sentimenduen lekuko izatea, azken finean etorkizuneko “enbaxadore txikiak” izango baitira. “Hezkuntzaren helburua, ikasleak eduki teorikoz hornitzeaz gain, bizipenak eskaintzea izan beharko litzateke”. Enpatia, auzolana eta elkartasuna arreta bereziarekin landu nahi ditu. Funtsean, gure aitona-amonek bizi zuten egoera lehen pertsonan ulertzeko parada dela dio: “Asko partekatzen dugu eta hemen egun urratzen dizkieten eskubide berak kendu zizkieten gutako senide askori”.

Hiru urtean behin hegazkina eskolako materialez, medikamentuz eta beharrezko produktuz bete eta Aste Santuko egunak bertan igarotzen dituzte, bertan bizi diren familien etxeetan. Herriaren azpiegituran nahiz eskolako zereginetan lagungarriak izan daitezkeen proiektuak egiteko asmoz hasi ziren sahararrekin elkarlanean eta oraingoz ez dirudi haria etengo denik.

### Kanpotik barrura

Egunotan, hara bidaiatu dugun bi kaze-tariak, medikua eta erizaina Mohamed Hamed familiaren apopilo izango gara. Gainontzeko bidaiariek ere bertako familiekin bizitzeko aukera izango dute. Goizeko ordu txikitik iritsi gara, eta ilargiaren argia inon baino biziago den arren, ilunpetan nola edo hala lortu dugu etxea aurkitzea. Lau kuxin handi dituen

*Mendebaldeko Saharatik ihes egin zuen amonak ezerezetik eraiki zuen bizitoki berean hezi behar du mugikorraren menpe dagoen biloba; belaualdi arteko talka parez pare. Alboko orriko irudian, zumaiarrak eta sahararrak auzolanean udaletxea pintatzen.*

gela batera sartzeko esan digu Galiak, Aisharen lehengusuak. Dada (Aisharen ama eta Galiaren izeba) aldamenen du. Gaztelan ez duela ulertzen esan digu eta guk hala moduzko zeinu hizkuntza batean eman dizkiogu eskerrak. Hassanieraz eskerrik asko *shukram* esaten dela erakutsi digu Galiak.

Biharamunean gosaria zain dugu esnatu bezain laster. Jatorduak Dadaren esku daudela ikusi dugu lehen gosaritik. Indartsu gosalduta irten gara etxetik, ogia mermelada eta gurinarekin, kafeaz lagunduta. Atarian oinetakoak jantzi eta Dairara abiatu gara. Gurekin batera etorri dira Shalka, Omar eta Ali, 8, 10 eta 11 urteko lehengusuak; hiruak oinutsik. Bost minutuko ibilaldiaren ostean, gainontzeko zumaiarrekin elkartu gara. Ikurrina eta Saharako bandera handi bana daude margotuta gelaren horma nagusian eta goiburuan *Darahli* irakur daiteke.

“Lekuz kanpo” sentitzen direla aipatu dute batzuek, 16 urte izanda zer gutxiago etxetik milaka kilometrora egonda, pentsatu dut ahopean. Familia berriarekin behar bezala ezin komunikatzeak kezkatzen ditu gehien, senide helduenek nekez baitakite gaztelan eta zenbait kasutan familiako ezekin kidek ez daki. Borondate onak baina, salbatuko dituela uste dute eta modu batera edo bestera, lortuko dutela etxe giroa sortzea hai-

mapean. Gogotsu bezain adoretu ekin diote abenturari herriko gazteek.

Datozen bi egunetan ez da beste zereginik izan, arrabolak hartu eta udaletxea pintatzea baino. Lantalde txiki bat barruko sare elektrikoaz arduratu da: argia, aire egokitua eta haizea mugitzeko helize batzuk jartzekoak dira. Ibargurenak aipatutako auzolanaren bi egitasmo nagusiak dira. Baita haur eskolako patioan margotuko duten murala ere. Zortzi laguneko beste talde batek egun gehiago beharko ditu memoria historikoaren proiektua egiteko: hiru familiako hiru belaunaldi elkarrizketatuko dituzte, guztiak emakumeak. Kanpalekuen iraganeko, orainaldiko eta etorkizuneko erronkak biltzea du xede egitasmoak. Lehenengo belaunaldiko emakumeek batez ere sufrimendua dute aipagai; bigarrenekoek, kanpalekuetan jaiok, asumitutako errealitatean daude kateatuta; eta neska gazteenak dira borrokalarrienak, aurreko belaunaldiak erreferente hartuta baina etorkizunari begira.

Bitartean, zortzi bat emakume tea egiten ari dira langile guztientzat. Udalbatzako langileak dira. Zug lau auzotan banatzen da eta auzo bakoitzak ordezkari bat du udal aldean. Saharako banderari begira nagoela ezagutu dut Fatima, lehenengo auzoko arduraduna. Mohamed itzultzaileari hurbiltzeko eskatu eta banderaren esanahia azaldu didate bien artean: “Gorria isuri dugun odolaren kolorea da. Beltza historikoki jasan dugun errepresioa. Zuriak bakea esan nahi du eta berdeak itxaropena”. Estu heldu nau eskutik eta tea eskaini dit. Kamera erakutsi diot, argazki bat atera ote diezaiokekan... Buruarekin baietz esan dit.



### Salbuespen egoera mugagabea

Basamortuak egunez ateratzen badu aurpegirik gogorrena, eguzkia ezkutatzen joan ahala itxuraldatu egiten da; ortzi-muga kolore morez apaintzen da, haurren joan-etorria bareagoa bihurtzen da eta izarrek zerua estaltzen dute, goitik behera eroriko bailtzen. Egunak azkar doaz aurrera eta zaila egiten da gertatzen ari denaz irakurketa sakon bat egitea. Pixkanaka ohitzen hasiak gara, ordea, egin beharrekoak zulo batean egiten, cous-cousa eta gamelua jaten, ahuntzak zaintzen, esnatu berritan *asbahaljair* esaten, eta umeekin zoroen modura jolasten. Bizitza sinplearen xarma, ezerezetik loratutako pozaren lekuko izatearen zorrea.

Testuingurua nabarmen aldatu da 40 urteotan. Bilakaera horren lekuko izan dira, besteak beste, Katixa Garcia eta Irune Bernal begiraleak. Duela hiru urte izan ziren lehen aldiz kanpalekuetan eta denbora tarte horretan, jada, azaleko aldaketa esanguratsuak antzeman dituzte. “Orain argia iristen zaie etxeetara eta hori aurrerapauso handia da. Ia gazte guztiek dute mugikorra, lehen ez bezala, eta autoak ere ugaritu egin dira”.

Azaleko aldaketak badute, ordea, B alde bat: nazioarteko laguntza inoiz baino urriagoa da. Gatazkak, errefuxiatuak, gerrak eta laguntza beharra ugaritu egin dira mundu zabalean eta nolabait sahararren auzia ahanzturara bultzatu dute gertakari horiek; jasotzen dituzten elikagaien kopurua nabarmen jaitsi da. 2012 aurretik hilabete osorako banatzen zituzten ondasun otarrek 30 egunerako balio bazuten, orain batez beste lehen hamabi egunetarako baino ez zaie iristen familiei.

» **IBON IBARGUREN, IRAKASLEA:**  
“Hezkuntzaren helburua, ikasleak eduki teorikoz hornitzeaz gain, bizipenak eskaintzea izan beharko litzateke”

» Lehenengo belaunaldiko emakumeek sufrimendua dute aipagai; bigarrenekoek, kanpalekuetan jaiok, asumitutako errealitatean daude kateatuta; eta neska gazteenak dira borrokalarienak, aurreko belaunaldiak erreferente hartuta baina etorkizunari begira

Hilabeteko otordu guztiak nekez osatu ditzakeen familia berak hozkailuko janaririk preziatuenak jarri dizkigu, eguna joan eta eguna etorri. Etxeko atea irekitzea gutxi ez balitz, bihotzak zabaldu dizkigute eta erraietan aingurata dituzten zaurien berri eman digute. Esaterako, exodoan erditu zuen emakume bat ezagutzeko aukera izan dugu, marokorak etxera sartu ahala soinean zeraman apurrarekin ihes egin behar izan zuena. Haurra bonbardaketa baten ondorioz galdu zuen, beste bi ahizpei ere seme-alabak hil zizkieten errefuxiatu aldian.

Familia sahararrak jada hiru belaunaldiz osatuta daude, eta iraganaren eta etorkizunaren arteko lerroak amaiezina dirudi. Amets bakarra herriaren autodeterminazioa da. Aitzitik, Mendebaldeko Saharatik ihes egin zuen amonak ezerezetik eraiki zuen bizitoki berean hezi behar du mugikorraren eta teknologiaren menpe dagoen biloba; belaunaldi arteko talka parez pare. Hau guztia, behin-behineko bizitokia izan behar litzatekeen muturreko lurraldean.

“Sahara libre” oihukatu dugu ilunabar bakoitzean. Haurren zoriona irribarrean txertatu zaigu eta tea zainetatik doakigu bederatzik egunen ostean. Duintasunez betetako herri baten parte sentitu gara basamortuaren erdian; indarrak batu ditugu bizi duten egoera horren amaiera berandu baino lehen iris dadin. Ikasleek eurek, azken eguneko hausnarketa saioan, halaxe baitzioten: haientzat sekulako esperientzia izan arren, ametsik onena bidaia ez errepikatzea izango litzatekeela, ondorengo belaunaldiei konstatu beharreko zerbait izatea behinola Sahara ez zela libre. ■

# GERNIKA

Gezuraren  
kedarra  
bizirik dago



Urko Apaolaza Avila  
@urkoapaolaza

ARGAZKIAK: GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA





Gernikako bonbardaketaren 80. urteurena iaz izan zen, aurtengoa beste apirilaren 26 bat da beraz, haatik garrantzirik ez dute galdu sarraski hura gogoratzeko ekitaldiek. Gernikako herri ekimenak programazio zabala osatu du eta aurten ere lotu ditu 1937ko krimena eta gaur egungoak, gogoraraziz armagintzan dugun inplikazioa eta gerrak “hemen” hasten direla. Sinbolismoz beterik dagoen eta hotzikara sortzen duen sirenaren soinua entzungo dugu berriz ere, eta orain aste batzuk, astelehen odoltsu hartako merkatu eguna antzestu dute herritarrek, besteak beste.

Oroimena bizirik mantentzea ezinbesteko zaigu zortzi hamarkada geroago, beste batzuek zabalduzako gezurraren kedarra ere bizirik dagoelako oraindik. Bonbardaketa gertatu eta bihamuenean, Francisco Franco matxinatuen jeneral faxistak bere propagandarako mediei agindu zien ukatzeko euskaldunen hiribildu gurtua eurek suntsitu zutenik, alderantziz, hortik aurrera bertsio ofiziala izango zen *gorri-separatistek* erre zutela Gernika, “su eta gasolinarekin”.

40 urte baino gehiago iraun duen gezurra, deliberatuki eta modu kontzientean zabalduzako egiaren kontrako kontakizun hura, gaur egun edulkoraturik ageri zaigu gertatutakoari nolabaiteko garrantzia kentzen dion historiografiaren bidez. Xabier Irujo historialariak urteak daramatza Gernikako bonbardaketa ikertzen eta berrikitan kaleratu du *La Verdad Alternativa* (Txertoa, 2017) liburua, faltsukeria

handi horretatik eratorritako 30 gezur zerrendatuz.

Herbert Southworthek 1977an *Guernica! Guernica!* lan aitzindaria idatzi zuenetik beste 40 urte igaro badira ere –idazle estatubatuarrek hiriaren deuseztapenari buruzko mito frankistak hankaz gora jarri zituen–, Irujok beharra ikusi du ildo beretik jarraitzeko, bonbardaketaren ukazioaren aurrean: “Gezurra ez da berez existitzen –dio hitzaurrean– ez bada egia deformatuz, eta horregatik beragatik, ez balitz existituko ‘egiazkoa eta egiaztagarria den gertakizuna’ deitzen diogun hori, ez litzateke iruzurrik eta fikziorik existituko. Ikuspegi horretatik, gezurra egiaren ispilua baino ez da. Baina ispilu aberrantea”.

Denboran barrena hondoraino sartu diren zenbait baieztapen desmuntatzen ditu liburuan egileak. Hala nola, Gernika garraio lotune garrantzitsua zela –nahiz eta frontetik atzerantz erretiratzen ari ziren gudariak ez ziren handik igaro, baizik eta Zornotzatik–; edo hiriaren kanpoaldean zegoen Errenteriako zubia zela hegazkinek birrindu nahi omen zutena, baina lainoaren eta kearen ondorioz erratu zirela... Bonbardaketa ez zen sekula helburu militar estrategiko bat izan, herritarrak izan ziren helburu eta Gernika nahita suntsitu zuten –armagintza fabrikak eta interesa zuten zatiak salbatu zituzten soilik–: “Borroka abiazioan oinarritzen da, etsaia moralki deprimituz”, idatzi zuen bere egutegian Joachim von Richthofen Condor Legioko buruak.

### Hildakoen dantza mingarria

Eztabaida nagusietako bat biktimen eta hildako lagunuen kopuruaren inguruan eman izan da, azken batean bonba horiek pertsonengan eragindako mina baita garrantzia gehien duena. Bonbardaketa gertatu eta hiru egunetara Gernika faxisten esku geratu zen eta hortik denbora batera Estanislao Herran ingeniaria presidente zuen batzorde batek aparatu frankistaren komenientziara egindako *Herran txostena* zabaldu zuen –geroztik sarraskiaren ukatzaileek makina bat aldiz erabiliko zuten iturri hori–; horren arabera, egun hartan Gernikan apenas hil ziren ehun lagun.

Aitzitik, Irujoren esanetan baliteke hildakoak 2.000ra hurbiltzea; lekukoek eta nazioarteko kazetarien testigantzetan oinarritzen da batez ere. “Familia osoak desagertu ziren –idatzi zuen gero George Steel korrespontsal ezagunak– gorpuak kolpatuta eta ubelduta agertzen ziren”. Euskadiko Gobernuak 1.646 hildako erregistratu zituen, baina biktimen gorputzak eraikinen artean eta eraitsitako babeslekuetan lurperatuta geratu ziren denbora luzez, eta suntsitutako etxeetako hondakinak 1941 urtera arte guztiz kendu ez zituztenez –aurkitzen zituzten giza aztarnak miramendu askorik gabe ezkututzen zituztela–, Irujok azken zifra hori ondorioztatu du. Beste ikerlari batzuek 300 inguru izan zitezkeela diote.

Baina biktima horiekin justizia egiteko, behar beharrezkoa da ahalik eta kopuru zehatzena jakitea, ez soilik Ger-

nikaren kasuan, baita atzegoardiako frankisten errepresioaz ere. Nafarroan adibidez, ahozko historia funtsezkoa izan zen fusilatuei zenbakiak jartzeko. Emilio Majuelo historia irakaslea duela gutxi Nafarroako Parlamentuan izan da lurralde horretan “isilarazitako” zapalduz hitz egiteko, eta zera esan dio *El Diario.es* egunkariari: “80ko hamarkada hasieran bai egon zen borroka bat prentsan, hildakoen kopuruaz. Orain zenbakiak kontu hori –ez interpretazioarena, baina bai zenbakiarena– amaituta dago. Interpretazioak libre dira, baina zenbakiak ez”.

Horregatik da hain mingotsa Gernikako bonbardaketaz oraindik dagoen dantza hori. Izan ere, 1937ko egun hartan gertatu ikertzeko eman nahi diren urratsei zenbaitek jartzen dizkien oztopoek, Francok agindutako gezurraren erre usaina dute. Nazioarteko kongresu bat eta ikerketa batzorde bat babesteko mozioa atzera bota du PPK Espainiako Senatuan apirilaren 9an, “partziala” litzatekeela esanez; EAJko bozeramaile Jokin Bildarratzek ez du bere samina ezkutatu, eta gogorarazi du oraindik ez dakigula zenbat jende hil zen: “Horrek bakarrik erabat justifikatzen du kongresua ospatzea”.

Krimena gutxietsi edo zuritzeko joera etengabea da, berdin arte “aditu” batek esaten duenean Picassok *Guernica* margotu zuenean bost axola zitzaiola Bizkaiko hiribilduan gertatutakoa eta bere autobiografia bat besterik ez dela, edo Ciudadanosek nahasten dituen duela 81 urteko sarraskia eta ETAren atentatuak



*Hegazkin alemaniar eta italiarrek, lehenik etxebizitzak barrutik zartatu eta eraisten zituzten bonba handiak jaurti zituzten, eta ondoren lehegailu su-eragileak, behin eta berriz. Amaitzeko, inguruko bideetan ihesean zihosen herritarrak eraso zituzten metrailetekin. Gernikako 318 eraikinetatik 271 “erabat suntsituta” geratu ziren, hiribilduaren %85 Xabier Irujoren arabera; bonbardaketa herritarrak “harrapatzeko” diseinatu zela dio. Galiziako Erreinuako Artxiboan gordetako irudi honetan –abiatio frankistak ondoren airetik ateratakoa–, agerian geratzen da txikizioa norainokoa izan zen.*

LA VERDAD ALTERNATIVA / ARQUIVO DO REINO DE GALICIA

artelana Madrildik Euskal Herrira eramatea eragozteko, Espainiako Kongresuko azken bozketan egin zuen moduan.

Gerrari komeni zaion egiaz idatzi du Gorka Bereziartuak astekari honen aurreko zenbakian, Siriakoarekin ikasi dugu: “Gezurak aspaldi utzi zion pro-

blema izateari, erabaki politikoak ez baitira hartzen gertatu den horretan oinarrituta, gertatzea komeni denaren gainean baizik”. Nola egingo diegu aurre gaurko misil *eder eta azkarrei*, oraindik ez badiegu orduko bonbei neurririk hartu? ■

## Txikipedia

# Haurrentzako Wikipedia jaio da

Wikipediaren barruan Txikipedia paratu duen munduko lehen hizkuntza da gurea. 8-13 urte arteko haur-gazteentzat Wikipediako edukiak luzeegiak eta konplexuegiak izan daitezkeenez, milaka artikuluko egokitu sortzea da helburua. Testu-egile izateko gonbidapena euskaldun orori luzatu dio Euskal Wikilarien Elkarteak.



**Onintza Irureta Azkune**

@oirureta

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Bilatu Wikipedian Charles Chaplin, eta egin gauza bera Txikipedian. Edo nahi baduzu sartu “karraskaria” Wikipedian eta ondoren Txikipedian. Bistakoa da, batean luze eta terminologiaz ondo hornituta idatzitako testua aurkituko duzu, bestean edukiak paragrafo gutxiak dira, xume idatzita eta ikuspegi didaktikoarekin. Lehena helduentzat da eta bigarrena haur-gazteentzat. Duela urte batzuetako datua da, baina Alemaniako Klexikon wiki-entziklopediak egin zuen ikerketaren arabera, interneten sartzen ziren gaztetxoek %30ak Wikipedia erabiltzen zuten. Batez ere ikastetxean eskatutako lanak egiteko baliatzen dute entziklopedia hori. Euskarazko Wikipediak hezkuntzan arrakasta handia duela ere dago zalantzarik, irakasleek erabiltzen dute, eta nola ez, ume alemaniarrek bezalaxe hemengoek ere sarri jotzen dute Wikipediara.

Haiatzat egokiagoak diren edukiak sortu nahian, wikilari batzuek euskarazko Wikidia abiarazi zuten 2015ean. Wikidia ere wiki-entziklopedia da –edonork idatzi, aldatu eta osatu ditzake artikulua– baina ez dago Wikipediaren barruan. Frantzia sortu zuten 2006an. Wikidia garatuenak frantsesez eta daniaraz daude. Frantsesezko bertsiotik

eduki asko hartu eta itzuli dituzte euskarara, eta egokitu euskarazko bertsiotik. Hala, euskarazko Wikidiak 1.000 artikuluko inguru ditu. Orain Wikidiako edukiak Txikipediara eraman dituzte. Atzera-aurrera horiek bi galdera sortzen dizkigute: Zergatik batetik besterako aldaketa? Eta nolatan da Txikipedia Wikipedian dagoen umeentzako lehen entziklopedia?

## Egin al daiteke gazteentzako mundu mailako Wikipedia?

Galderen erantzunak Juan Luis Biguri Wikidiaren euskarazko bertsiorekin sortzaileak eta Txikipediaren bultzatzaileak eman dizkigu. Egitasmoa buruan zutenei bereziki garrantzitsua iruditu zaie umeentzako entziklopedia Wikipedian egotea, hain zuzen ere, euskaraz eduki bila hasten direnean ia erabat Wikipediara jotzen dutelako. Nekezago joko dute ezagutzen ez duten Wikidiara. Eta, zergatik ez dute gauza bera egin beste hizkuntzetan? “Gazteen heziketa ari garenez munduan ez dago adostasunik gazteek zer eta nola ikasi behar duten. Mendebaldean gauza bat onargarria izan daiteke eta munduaren bestaldean ez”. Hainbat erlijio, kultura, hizkuntza eta herrialdeetako bizilagunak haur-gaz-



teen heziketan ados jartzea ezinezkoa dela uste du Bigurik, eta ez berak bakarrik, eztabaida handia dago gai horren inguruan. Gazteei ez zaie aitortzen irizirik kritikarako ahalmen autonomorik. Arrazoi horiengatik, helduentzako Wikipedia badago ere, ez dago umeentzako Wikipedia txikitxorik. Euskal wikilariak zirrikitu teknikoak aurkitu dituzte hala izan dadin eta oraingoz behintzat Wikipedia egitasmoak ez du ezezik eman. Gainerako hizkuntzek Wikipediak kanpo osatzen dituzte umeentzako entziklopediak, aipatutako Wikidia Frantzia eta Danimarkan adibidez, eta Klexikon Alemanian.

## Nork idatzi behar du umeentzako entziklopedian?

Ikuspegi desberdinak daude. Frantziako Wikidiak adibidez balio hezitzaile handia ematen dio gazteek beraiek idazteari. Ohikoa da ikastetxeetan egindako lanak Wikidian txertatzea. Lan horiek askotan ikastetxearen webgunean edo



## 5.000 ARTIKULUKO TXIKIPEDIA AMETS

1.000 artikulua inguru ditu Txikipe-  
diak (euskarazko Wikipediak 300.000).  
5.000ra iritsiko balitz oso tresna baliagarria izango litzatekeela uste du Juan Luis Biguri egitasmoaren bultzatzaileak. Horretarako testu egileak behar dira eta dei zuzena egin diete irakasle banakoei ez ezik irakasle talde, irakas-kuntza sindikatu, irakasle eskola, pedagogo eta abarrei. Irakasleak dituzte egile ezinbestekotzat, nahiz eta edonork, baita gazteek ere, edukiak sortu ditzakeen.

Batik bat EHUrekin, baina baita HUHEZirekin eta Deustuko Unibertsitatearekin ere harremanetan daude ikasleek Wikipedia ezagutu eta elikatu dezaten. Bultzatzaileen nahia unibertsitate horietako irakasleek eta ikasleek Txikipedia elikatzen hastea da.

blogetan argitaratzen dira, eta ondoren eduki horiek Wikidiara igotzen dituzte. Alemanian bestelako ustea dute. Haien iritziz, gazteak ez dira pertsona egokiak edukiak egiteko, adituak baizik. Ia erabat helduek idatzitako artikuluek osatzen dute Klexikon.

Biguriren nahia Txikipedia bietatik elikatzea da. Oraingoz ia eduki guztia helduek eginga da, salbu eta Ordiziako Jakintza Ikastolako Batxilergoko ikasle batzuen edukiak. Biguriren iritziz, “ez dut uste ikastetxeetan proiektuak lan-tzen dituztenei Txikipediako atea itxi behar zaienik. Beste kontu bat da tes-

tuek bai kalitate testuala, bai zientifiko izan behar dutela, eta horretarako irakasleen kontrola behar dutela”. Bada beste arrazoi bat Txikipedian egoteko: ikasleentzat zirrargarria da haien lanak eskolako webgunean ikusteaz gain Wikipedian daudela jabetzea, edonoren eskura, eta edonork zuzentzeko, osatzeko eta hobetzeko aukeran.

### **Euskara-gaitasun kaxkarra, kezka**

Txikipedia, adinera egokitutako egitasmoa da. Adinaz gaindiko faktore batek kezkatzen du Biguri, gaztetxoek euskara gaitasunak, hain zuzen. Batetik,

Siadecok Elkarrentzat kultur kontsumo ohiturez egindako ikerketa ekarri du gogora. Euskarazkoak ez kontsumitzeko arrazoi bat ulermen arazoak izatea da. “Eskoletan erabiltzen diren testu askoren prosak ulermen arazoak eragin ditzake, esaldi komplexuegiak, testu terminologizatuak... Hemen oso gutxi aztertu dugun eremua da. Horri lotzen badiogu ikerketak dioena, uste dut zer pentsatua eman behar ligukeela”.

Bestetik, lehen hizkuntza euskara ez duen haur talde gero eta handiagoa du gogoan. Bigurik dio lehen hizkuntza euskara ez izanda hizkuntza gaitasun ahulagoa izateko aukera asko dituztela. Ezaugarri linguistiko horiek dituzten eta izango dituzten gazteentzat nolako edukiak landu behar diren hausnarketa egin behar dela iritzi dio Txikipediaren bultzatzailea den Bigurik. ■

BABESLEA: **HERNANIKO UDALA**



### **AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK 5. ALDIZ ABIAN**

Hernaniarrok erabakiko dugu  
2019ko aurrekontuaren **500.000 euro** zertan inbertitu

[erabaki.hernani.eus](http://erabaki.hernani.eus)



# Porru ederra sartu digute



**Jakoba Errekondo**

[jakoba@bizibartztea.eus](mailto:jakoba@bizibartztea.eus)

Berri txar batekin natorrela iruditzen zait. Berri oso txarra. Txarrenetan txarrena, ezin txarragoa. Txarrena da berria konturatzerako zaharra izango dela, eta gu ohitu egingo gara.

1858an Poloniako Poznan eskualdean aurkitu zuten euli berezi bat, sekula katalogatu gabea, *Phytomyza gymnostoma* deitu zuten. Gero *Napozoma gymnostoma* ere deitu izan zaio, baina egun atzera lehengo izenez ezagutzen da. Etxe-eulia, ezpara eta eltxoa bezala, Dipteroen familiakoa da.

*Phytomyza gymnostoma* horren berri bazuten 1976an Danimarkan, Suedian, Polonian eta Mediterraneoan. 1980ko hamarkadan, bat-batean, ez dakigu zergatik, *Allium* generoko espezieen izurrite bilakatu zen. Hasieran Europako



Mikel Arbelaitez Oartzunen ateratako argazkiak erakusten du Euskal Herrira iritsi dela *Phytomyza gymnostoma*, porruari erasotzen dion eulia.

ekialdeko herrialdeetan, gero mende balderantz jo zuen. Dagoeneko, itsasoak zeharkatzen ikasi du, eta Ingalaterran eta AEBetan ere azaldu da.

*Allium* generoko espezieei erasotzen die, bereziki porruari (*Allium porrum*). Emeak arrautzak jartzeko obopositorearekin zulatu eta izerdia zurrupatzen du, hostajea kiribilduz. Arrautzak porruaren oinean jartzen ditu; horietatik sortutako harrek zulobideak egingo dituzte porruaren barruan. Negua igarotzeko pupa gorritzat bilakatuko da. Udaberrian, apiril aldera eulia sortuko da; horiek arrautzak jarri eta udazkenaren hasieran harrak izango dira berriro hurrengo uztako porru sailetan. Porruari bakarrik ez dio erasotzen; baizik eta baita porru-tipulari (*Allium schoeno-*

*prasum*), tipulari (*Allium cepa*), baratxuriari (*Allium sativum*) eta txalotari ere (*Allium cepa* var. *aggregatum*).

Nik ez nuen ezagutzen izurrite hori, eta gaur, 2018ko apirilaren 15ean izan dut bere berri Mikel Arbelaitez Oartzunen ateratako argazki batzuetan. Bertan porruetan egindako zulobideak eta harrak denetik euli den arte sortzen duen pupa gorria ikusten dira. Iaz ere izan omen zuten izurritea porru sailean. Beraz, beste berririk ezean, 2016-2017ko uztako porruetan azaldua da Euskal Herrian porruaren daratulu euli hau. Laster Euskal Herri osoan ezagutuko dugu. Porru ederra!

Berri-berria da; euli horrek Wikipedian ez ingelesez ez frantsesez ez gaztelaraz ez du sarbiderik; ea euskarazkoa egiten diogun. ■



**endanea**  
garden

943 64 17 10  
[www.endanea.com](http://www.endanea.com)  
Jaitzубia 40, Hondarribia

## Lore eta kolore

Udaberria eta uda kolorez betetzeko landare bizi eta koloretsuetan aukera zabala.








PLENTZIA

# Auzolanean ari dira Isuskitzako basoa eraberitzen



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: PLENTZIAKO UDALA

Txalupa hartu eta itsasadarra jarraitzea da Plentziako (Bizkaia) Isuskitza basora iristeko modurik errazenetarikoa. Hirigunetik kanpo, periferiako auzoetako bat da Isuskitza, gaur egun urbanizazio pribatua den gunea. Urbanizazioaren ondoan, ordea, lur publikoak ditu Udalak. Iaz, urteetako utzikeriari aurre egin eta Isuskitzako basoa eraberritzeari ekin zioten boluntario taldeek eta herriko hainbat eragilek, Udalaren babesarekin.

## Basoa eta ontziolak

Erdi Aroan Plentzian garrantzia handiko jarduera izan zen ontziolena. Nondik ateratzen zuten egurra ontziolak? Bada, Isuskitzako hariztitik. "Ikusi genuen baso honen eraberritzea aukera polita zela gure ondarearen eta historiaren garrantzia ere mahai gainean jartzeko", azaldu dute Plentziako Ingurumen sailetik. Ber-



tako baso autoktonoa berreskuratzea ezezik, herriko historiaren zati bat berreskuratzea ere badute asmo. Udaletxeko artxibo historikoan arakatzeko aritu ziren proiektuko kideak: "Guztia azaltzen da hor: garai hartan zer zegoen basoan, zer landatzen zen mintegietan..."

"Sortutako eukaliptoek, akaziek eta panpa-lezka bezalako espezie inbaditzaileek estaltzen dituzte Tranpaerreka-ko magal aldapatsuak eta itsasadarraren ondoko malda apalagoak". Isuskitzako basoaren inguruko txostenean azaltzen da zein espezie diren nagusi egun inguru horretan. Plentzian egoera zertxobait hobea bada ere, eukaliptoek eta bestelako espezie inbaditzaileen zabalkundea oso handia da Uribe Kostan, bertako basoentzat kalte. Horregatik, Plentziako Udalak argi du baso politika aldatzea beharrezkoa dela. Bide horretan doa Isuskitzako basoa eraberritzea.

## Auzolana eta herriko eragileen inplikazioa

Boluntario taldearen eta herriko hainbat elkarteren lanari esker ari dira Isuskitzako basoa zaharberitzen. Bihurtuz GKE-rekin batera mintegia sortu dute baso eremuan, eta Plentziako eskolakoek ere parte hartu zuten hasieran haziak bonbiletan landatuz, ondoren basora eramateko. Orain, herriko institutuarekin, gaztetxeko 'Txiki Asanbladarekin' eta auzokideen beste zenbait elkarterekin elkarlanean hasiko dira. Apirilaren 29an, esaterako, irteera egingen dute Isuskitzako basora landaketekin jarraitzeko.

"Boluntariook auzolanean ari gara proiektua aurrera ateratzen, baina herriko elkarte eta eragileen inplikazioa ere bilatzen dugu, proiektuaren egunerokotasunean ez bada ere ekimen ezberdinen bidez parte hartzea bultzatuz", diote Ingurumen sailetik. ■



### Azoka eguna

### Gazte eguna

**Malatzak 5:**

- 10:00etan** Nekazal eta kontserba azokaren irekiera. Elkartearen arteko V. PINTXO LEHIAKETA.
- 11:30ean** Kaxero Gaupaseroren jeitsiera
- 12:00etan** Pregoia eta txupinazoa
- 12:30ean** Pintxo dastaketaren hasiera
- 13:00etan** Trikipand taldea azokan zehar
- 14:00etan** Pintxo lehiaketako sari banaketa
- 17:00etan** EH-ko Soka tira txapelketa
- 17:30ean** Kuadrilen arteko jolasak

Ondoren triki poteoa Naihara eta Oihanerekin

**22:00etan** Kontzertuak eta erromeria

# azoka

**Nork?** ARGIAren Azokan salgai jar dezake edozein herritar, eragile, elkarte, enpresak.  
**Zer?** Era guztietako salgaiak: produktuak, etxeko ekoizpenak, bigarren eskuko gauzak...  
**Nola?** Oso erraz. Sartu argia.eus/azoka helbidean, eta klikatu "Saldu" atala. Horko formularioa 5 minutuan betetzen da.  
**Zertarako?** Zure salgaiak Euskal Herriko herritar denengana iristeko, balio berak partekatzen ditugun jendearekin harremanak sendotzeko, eta ARGIA proiektua indartzeko.

[www.argia.eus/azoka](http://www.argia.eus/azoka)

## KONPRESA BERRERABILGARRIAK

Hilekoarentzako konpresa xurgagarria, iragazgaitza eta transpiragarria. Ehun iragazgaitzak popelinezko kotoi organiko estanpatuaz egindako geruza fin bat darama. Barrualdea belusezko kotoi organiko eginda dago eta ezkutuan geratzen den zatiak iragazgaitza eta transpiragarria den geruza bat darama, kalamu eta kotoi organikoarekin indartuta.

### Ezaugarriak:

- Neurriak: Hiru lodiera maila aukera daitezke eta hankarteko zabalera egokitzeko bi posizio dauzka.



**13 euro**

**72 salgai ditugu ARGIAren Azokan:**  
 argitalpenak, mahai-jolasak, jantziak, ikus-entzunezkoak, gorputza, laminak eta mapak, eguzki-lorez egindakoak, eta bestelakoak.  
**ARGIA Jendeak musutruk hartu ditzakegun 17 gai ere badira!**

Gorputzerako berrerabilgarriak diren beste gai batzuk:



### Egunerokorako kulero babesleak

Egunerokorako, hileko koparekin, tanpoiekin edo hileko azken egunetan erabiltzeko. Oihal ekologikoz eginak

**10 euro**



### Bularretakoen babesleak

Edoskitze garaian, esnez titi-zorroak ez bustitzeko. Iragazgaitzak dira eta kotoizkoak. Irudiz apainduak. Paketean sei disko jasoko dituzu.

**18 euro**



### Makilajea kentzeko eskuoihaltxoak

Leunak, kotoi organiko eginak. Irudiz apainduak. Neurriak: 13 x 11 cm. Paketean lau eskuoihaltxo jasoko dituzu.

**18 euro**





Eskuinean ikus dezakegu makina berria.

## ANTZA

## 30 urtez bidelagun



Itsaso Zubiria Etxeberria

@itsasozubiria

ARGAZKIA: DANI BLANCO

ARGIA ez litzateke ezer lagunik gabe, komunitaterik gabe, Argia Jenderik gabe, ingururik gabe, babesik gabe. Zu zara babes horren parte, irakurle, eta zuk bezalako ehunka pertsonak osatzen duzue Argia Jendea; harpidedunek, Internetez jarraitzen gaituztenek, tabernan edo kontsultaren batean irakurtzen gaituztenek... Baina enpresen arteko babesa ere ezagutzen du ARGIAk, eta horietako bat da Antza. 30 urte betetzen ditu oraintxe, antza.

Kooperatiba egitura duen inprenta honetan bota da ARGIA astero azken hiru hamarkada hauetan. Bota da eta botatzen da. 80ko hamarkada hartan ARGIAk fotokonposizioiko talde bat zeukan, eta eskuz muntatzen zen aldizkaria. Baina Tamayo inprenta erosteko aukera suertatu zen, eta astekariaren bizirau-pena bermatu eta *Euskaldunon Egunkaria* sortzeko balio zezakeela uste izanda, ARGIAren bueltako lagun-talde baten mailegu bitartez eman zuten inprenta-rako saltoa. Antza.

Hamar bat langilerekin jarri zen mar-txan kooperatiba berria, ARGIArekin espazioa partekatzen zuela. Gaur egun Lasarte-Orian jarraitzen dute, orain espazio desberdinetan, baina parez pare bi lantegiak; eta Antzak hemeretzi langi-

le ditu. Ekarri berri dute, gainera, makina berri bat automatismo eta teknologia berrien bidez langileen baldintzak eta produktuaren kalitatea hobetzea espero dutena.

**Handiagoak erori dira eta txikia tente**

“Hogeita hamar urte hauetan krisi edo kolpe bat baino gehiago izan dira, eta enpresa handi eta itxuraz indartsuagoek ez diote eutsi. Nola da posible Antza bezalako enpresa txiki bat, gora-beherak gora-behera, tinko mantentzea?”, izan da nire galdera. Hitz bitan erantzuna: langileen konpromisoa. Kapitalik gabe, mailegu eta zorrak dituzten enpresek beharrezko dute lantalde konprometitu eta solidarioa. Eta kudeaketaren aldetik, diote, “ondo ulertutako austeritatean bizitzea da oinarri”. Hori da euren susmoa behintzat.

Hasieran esan moduan, enpresen arteko elkartasuna, babesa ere garrantzitsua da momentu zailletarako. Zein garrantzitsua den ARGIA Antzarentzat hilabeteroko lan bat bermatuta izateko; eta alderantziz, zein inportantea den ARGIArentzat inprenta hau bidelagun izatea, ordaintzeko arazorik egon de-nean hobe izaten baita bankuarekin negoziatzen ibili ordez lagunarekin hitz egin eta tratu batera iristea. Zein garrantzitsua den biak ala biak zutik mantentzea. Antza ere Argia jendea da.

Urte askotarako! ■

## ARGIAkoa egiterakoan emandako arrazoia

“Proiektua bera”

Ainhoa Unanue, Donostia

## Sarean arrantzatua

## Umap Euskaraz

@umapEU


Rankina berri du. Aste honetan gailurrean:

- Kulturari @Badokeus
- Hedabideetan @argia
- Gizartean @ernaigazte
- Euskarari @EHEbizi
- Norbanakoetan @boligorria

## Martin Kitto

@martin\_kitto

DAFLIPAT. Zipi eta Zape Argian. Barkatu, “Patxi eta Peru”. [60ko hamarkadan Zeruko ARGIAren banatzen zen umeentzako Pan Pin gehigarrian zetorren komiki tira hau].



## Zuzendaritza osatzeko irizpideak lantzen

Apirilaren 13an Akziodunen Batzarra egin zen. Bertan adostu zituzten langileek zuzendaritzaren jarduerari buruzko oinarriak: zuzendaritzaren funtzioak, zeren arabera aukeratu kideak, nori dago-kion kideak aukeratzeko, zenbat urterako sartzen den zuzendaritzan, nola egin trantsizioa... Dagoeneko oso aurreratuta dago prozesua, eta erabat definitzean izango duzue xehetasunen berri, orri honetan bertan.

# BAZTANGAREN MATXINADA HERNANIN



**Nagore Irazustabarrena  
Uranga**  
@irazustabarrena

Hernani (Gipuzkoa), 1918ko apirila. Lasarte eta Hernani inguruetan zenbait baztanga kasu agertu zirenez, Gipuzkoako gobernadoreak hainbat neurri hartzeko agindua eman zuen: Lasarteko herritarrei, hipodromoko jockey-ei eta ukuiluetako langileei txertoa jarzea (agerraldia hipodromo inguruetan sortu omen zen) eta gaixotutako zazpi pertsona Lasartetik Hernaniko Benefizentzia Etxera eramatea, bertan hobeto isolatuta egongo zirelakoan.

Gaitza ezagun zuten Hernanin eta neurriak beldurra zabaldu zuen herrian. Udalak gaixoen lekualdatzea bertan behera uzteko eskatu zien gobernadoreari eta beste agintari batzuei, baina alferrik. Bide ofizialak agortuta, hilaren 2an, herritarrek Lasarte eta Hernani arteko bideak barrikadaz josi zituzten eta Zinkoenea inguruan guardia zibilei aurre egin zieten. "Gurdiz, upelez, oholez eta bestelako tramankuluz kaleetako bidea eta Donostiako errepidea itxi zituzten" zioen *El Diario Vasco*k biharan. Benefizentzia Etxea bera erretzeko zorian ere egon omen ziren.

Baina matxinoek helburua lortu zuten, gaixoak atzera Lasartera itzularazi zituzten eta hernaniarrek albistea ospatzeko herri-bazkaria egin zuten Ezkiaga pasealekuan. Bazkari hartan he-



*Duela 100 urte Hernaniko herritarrek, nagusiki emakumeak, baztanga gaixo batzuk herrira eramateko aginduaren aurka altxa ziren. Gertatutakoaren berri bertsotan jaso zuen Joxepa Zubeldia bertsolariak.*

rriko bertsolari bat mahai gainera igo zen eta aulkian eserita, berak jarritako 24 ahapaldiko bertso-sorta bota zuen, gertatutakoaren berri xehe-xehe jasota. Bertsolari hura Matea Joxepa Zubeldia Elizegi (1867-1947) zen.

Estitxu Eizagirrek *Bertsoaren Haria* (2014) liburu mardulean eman zigun emakumezko bertsolari ezezagun honen berri. Eta emakume horrek, Joxepa Zubeldiak eman zigun bertso sorta horretan baztangaren matxinadaren protagonista nagusien berri: emakumeak. Prentsak haien parte-hartzea iradoki

zuen, barrikaden atzean "emakumeak eta haurrak jarri" zirela esanez, baina Zubeldiaren bertsoek deskribatzen dute gertakizunotan hernaniar emakumeek izandako benetako itzala:

*Bidera atera giñan  
emakume asko  
ta allegatu baño len  
egin degu alto  
zibillak esan zigun  
etxera biltzeko  
baizutela baimena  
odola ixurtzeko.*

*Mikela ta Axentxi  
pareja fuertia!  
Ayek aurren zirala  
fiñ giñan jendia  
zarrak eta gaztiak  
nexas ta andriak  
andre txit aberatzak  
baitaere pobriak.*

*Lana egin genduban  
kupira aundi gabe  
senarrak utzirikan  
bazkayrik gabe  
ustuta petroleoz  
ospitala iyurtzi  
aguro erretzeko  
kristal danak ausi. ■*




TXILEKO UNIBERTSITATEA

## Unibertsitate tituluak "oparitzea", merezita

Berriki, Txileko Unibertsitateak Pinochet diktaduran (1973-1990) exekutatu edo desagertutako 100 ikasleri unibertsitate lizentzia eta tituluak banatu dizkie sinbolikoki, haien senideen bidez. Erreparazio eta oroimen keinua Pinochet estatutuko kolpearen 45. urteurrenean, datorren irailaren 11n egingo da berriro, ikasketak amaitu ezin izan zituztenei titulu gehiago

emanez. 1973an Ennio Vivaldi medikuntza ikasten ari zen Txileko Unibertsitatean, baina berak ikasketak amaitzea lortu zuen eta egun bertako errektorea da: "Egiten ari garena autonomia moralezko keinu bat da, pertsona horiek hil zirela dioen diktaduraren agindua betetzen ez dugulako. Titulu hauek ematerakoan bizi-rik daudela adierazten ari gara". ■



**Kepa Altonaga** saiogilea

## “Euskaldunok ez gara mundu honetara herri normala izateko etorri”

Loiu, 1958. Biologia ikasketak egin zituen EHU, eta bertan irakasten du egun, Leioako Zientzia eta Teknologia Fakultatean. Saiogile ezaguna da. Zientzia, historia eta Euskal Herria uztartzen ditu bere lanetan. *Patagoniara Hazparnen barrena. Lotilandiakoak herri birlandatuan* (Pamiela) liburua kari solastatu gara berarekin apirilaren 2an, Sarako Idazleen Biltzarrean.



**Mikel Asurmendi**

@masurmendi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

### Gure ipar-ekialdearekiko jaidura duen saiogile mendebaldartzat izenda zaitzakegu?

*Back to Leizarraga* entseguarengatik diozu? Bada, ez naiz haatik, gure klasikoan aztertzailea edo aditua, [Joanes] Leizarraga ez dut sakon ezagutzen, ez baitu ganoraz landu. Ostera, eta esate baterako, XIX. mendeko idazle klasikoan bildumako denak irakurri nituen garai batean, gustu gehiagoz edo gutxiagoz, batzuetan disfrutatzen, bestetan sufritzen... Obra horien izaerarengatik diotsut.

### Iparraldera etortzeko joera duzu nolahi ere.

Urteak dira flash bat izan nuela, ikusi nuen hemen Gerla Nagusira arte bazegoela Euskal Herri erabat euskalduna; hemengo idazlanak aztertu, eta medikuak eta notarioak, baita herri xehea ere euskalduna zela. Alabaina, Euskal Herri hori bat-batean amiltzen zihoala ohartu nintzen. Ostera, Hegoaldean inon ere ez zegoela Euskal Herri guztiz euskalduna konturatu nintzen, eta, hala ere, erdipurdikako euskalduntasun hori mantentzen dela jabetu. Han [mendebaldean] idatzitako gehiena erdaraz zen, hemen [ipar-ekialdean] aldiz, euskaraz. Hor badaukat ezin ulertze bat, Iparraldeko gainbeheratze hori, amiltze hori...

### Nafarroako Erresumaren Erregina Joana III.a Albretekoarekin, XVI. mendean, bizi izan zen pizkundearen ondorioz sortu zen gizarte euskaldun sendoa, Frantziako Iraultzarekin amildu zela esan daiteke?

Ez dut uste horrela izan denik. 1914ko I. Mundu Gerrara arte hemengo Euskal Herria, salbuespenak salbuespen, euskaraz bizi izan da. Ipar Euskal Herriko jendea euskalduna izan zen iragan mende hasiera arte, edozein mailatako jendea zela ere, euskaraz bizi zen. Tira, edonola ere, nik XIX. mendeko gizartea ezagutu dut irakurketa dela medio.

### Sarako Idazleen Biltzarrean egoteko usaia duzu.

2000. urtearen bueltan etorri nintzen liburu baten aitzakian, eta harrezkero ez dut hutsik egin.

### Hegoaldean Durangoko Azoka nola, Iparraldean Sarakoa hala. Edo beste gisa batez hartu behar da hemengoa?

Hemen beste neurri bat dago, beste jende modu bat. Ni liburuen aitzakiaz lagunak



ikustearren etortzen naiz. Durangokoa beste istorio bat da. Hala ere, hara ere lagunekin egoteko hurbiltzen naiz, standetik standera ibiltzea ez dut gustuko.

### Literatura munduko giroa ez duzu gustuko?

Ni ez naiz mundu literariokoa, mundu horretako jendea ezagutzen dut, baina *outsider* bat naiz. Mundu hori begiratzan dut interes handiz, gustatzen zait irakurtzea eta zeintzuk eredu literario-gaiak eta idatz moldeak erabiltzen dituzten ezagutzea nik erabiltzeko, baina idazleak beste batzuk dira, nahiz eta niri ere gustatzen zaidan letrak elkarrekin juntatzea.

### Saiogile zara. Zientzia, historia eta Euskal Herria uztartzea gustatzen zaizu. Nola dago zientziaren dibulgazioa?

Zientzia dibulgazioa euskaraz... Badago pare bat aldizkari. Badago katedra oso bat, badago ahalegin bat... Baina momentu honetan dagoen dibulgazioa ez da nire gustukoa, ez gutziz gustukoa.

### Zergatik?

Bada, lantzen direnak azken-azken ordukoak direlako, "azken oihua" nolabait esanda. Euskal Herrian zientziari buruz aurkitzen dugun gehiena *Nature* edo *Science* aldizkariak argitaratutakoa da, *Elhuyar*-ek zabaltzen duena, eta jakina, beharrezkoa dena. Halaz ere, guk ezin dugu atzetik ibili, zientziaren dibulgazioak ezin du hori besterik izan. Zientzia munduan ari direnak momentu honetan erlaxatuta daude horrekin, eta beste hainbat gai, ezinago interesgarriak, bigarren mailan geratzen dira.

### Hala nola...

Beno, norberak aztertu duena adibidetzat jartzea ez da itxurosoena, baina hemen [Iparraldean] bazegoen Armand David [ezpeletar naturalista eta biologoa, panda hartzailearen aurkitzailea] pandaren aita, baina inork ezagutzen ez duena. Nola da posible balio naturalistiko hain handiko zientzialari bat, gurea izanda, ez haren libururik ez deusik egotea? Eta berriz diot, ez da nik egin



nuelako [Armand David, *pandaren aita* saioa, Elhuyar, 2001]. Modu berean, makina bat kontu dugu bertokoak, dibulgaziorako interesgarriak direnak oso. Zientziari buruzko gai horiekin batera badoa herri honen historia, zer gertatu den ezagutu gabe joan ere. Zergatik ez dute gai horiek eboluzionismoan lekurik eduki herenegun arte? Zerk baldintzatu du hori? Baldintza horiek ezagutu beharrekoak dira, baita iraganeko adituen arteko irizpideak ezagutu ere. Horiek zabaldu behar dira, baina ez soilik zabaldu, horiek zabaltzeko moduak garrantzi handikoak dira.

#### Zientzia eta historia uztargarriak al dira?

Bistan da. Segun eta zientziaren etiketaren atzean dagoena zelan ulertzen duzun, baita historia ere nola interpretatzen duzun. Historia data-zerrenda amaitu ezinezkoa izan liteke, baina lotzen badituzu pertsona bat halako egoe-rra batekin, giro internazionalarekin, hor zientzia eta historia uztartzen dira. Tira, ahalegindu egiten naiz horretan.

#### Kepa Altonagaren saiakera liburuak bereziak dira, batzuen iritzi.

Ez naiz ados. Bereziak beharbada Euskal Herrian dira. Ni ahalegintzen naiz ondo imitatzen kanpoan ikusi ditudan eredu batzuk, erran nahi baitut, zientzia, historia eta autobiografia nahasten ditut, nola halako nahasketak egiten ditut, baina kanpoan ere horrela ari diren dozena bat erdi saiogile aipatzen ahal dizut –Stephen Jay Gould eta David Quammen, adibidez–, beraz, nirea ez da berezia. Orijinala banintz pozarren nengoke, baina ez da horrela, ni imitatzen saiatzen naiz, ongi imitatzen hori bai.

#### Patagoniara Hazparden barrena. Lotilandiakoak herri birlantuan entsegua hizpide, historia eta fikzioa nahastu izan dituzula aipatu du kritikari batek.

Liburu horretan fikziorik dagoela? Bada, nik esango nuke den-dena benetako dela, eta ondo dokumentatua. Hala ere, *Patagoniara Hazparden barrena* dela eta ez dela, berau plazaratu zenean salduen artean egon zen, pozgarria argitaletxearentzat eta norberarentzat, baina harrituta ikusi nuen ez zegoela “ez-fikziozkoen” artean sailkatuta, “fikziozkoen” artean baizik. “Eta hori? Tira!”, pentsatu nuen. Entseguak benetako historia bat kontatzen du, erreallitatean gertatua. Hainbat ordu eman ditut horiek guztiak dokumentatzen. Jakina, fikziozkoen artean sailkatze hori laudorio moduko bat zen, alegia, hain ongi josita zegoela historia, ezen fikziozkoa ematen zuela, nolabaiteko fantasia bat dagoela nire ahaleginean, kreazio moduko bat. Baina ez, ez, ez. Hasieratik amaierara kontatutako guztia egiazkoa da, nahiz eta narraziorako aukerak ditudan hari batzuk autobiografikoak izan daitezkeen. Nik lantzean sartzen ahal dut ironia puntu bat, umore tantakada bat, baina printzipioz esaten dudana guztia berdaderoa da, beritiblea, alegia, egiazkoa.

#### Kritika onak ere izan ditu. Berria-ko Alex Gurrutxagarena hau, adibidez: “Letrak eta zenbakiak elkarrengandik hain urrun dabilzan garaiotan, ez dira asko izaten lerro biak uztartzen dituzten ikertzaileak. Kepa Altonagak zientzia eta kultura, literatura eta ikerketa zientifikoa lotu izan ditu bere-berea duen saiakera moduan”.

Ez daukat nire burua idazletzat, esan dizudan moduan. Baina egiari zor, ho-

rretan badago gezurretik apur bat ere. Idazlea, nire ustez, benetan idazlea da kreazioan ari dena, hutsetik abiatu eta istorio bat hezuramaitzen duena. Nik idazteko, ezer baino lehenago datuak behar ditut, datu asko, datu historikoak, zientziazkoak, eta horiek zelan gardainatu pasatzen dut denbora gehien, historia harilkatu ahala eraikitzen. Abiapuntuan historiak dauzkat, dokumentuetatik jaso ditudanak, lanaren parterik politena dokumentazio lana da, eta parterik kreatiboena, hau da, ikustea historia horietatik zeintzuk izango diren nik baliatuko ditudanak kontakizunerako, zelan harilkatuko ditudan. Hor joan-etorriak daude, sarritan esaten dut meandroka egiten dudala, badakit kontakizuna noraino doan, itsasoraino, baina hori doa ibaia bezala buelta eta buelta bokaleraino iritsi baino lehenago, lan hori da kreatibo, hor kreaziorik balego behintzat.

#### Florentzio Basaldua (1853-1932) da liburuiko protagonista nagusia. Bilboko ingeniaria, konbentzituta zegoen Patagonian *Euskal-Berria* sortzeko aukeraz. Hazparneko misionisten buru Janpierre Arbelbide da (1841-1905) beste bat. Historia da, baina ez da ezagutua.

Batzuetan inpresioa daukat, hainbat kontuetan errepikatzen ari garela, hau da, egindako asko egin dago, baina ez dugu ezagutzen. Florentzio Basalduarena sinestezina da. Patagonian *Euskal Berri* bat egin nahi du. Eta batzuentzat sinesgaitza bada ere, hara joan baino lehenago Hazpardenetik pasatu zen, hemen bizi izan zen. “Bilbotar bat Hazparden ikasten egon dela? Baina zelan? Nondik? Nola?”, dio jendeak. Horrelako kontuak aipatzen dizkiozu dakienari, konparazionera Piarres Xarriton zenari, eta esaten dizu “bada bai, garai batean Hazparne hegoaldeko ikaslez beterik zen”, baita azalpenak eman ere. Hau da, aztertzen hasten zara, pentsatzen duzu harremanak txiripazkoak izan zirela, baina gero konturatzen zara bazegoela sare moduko bat. Sare horien barruan oso erraza da bi pertsona horiek elkarrekin topo egin izana. Florentzio Basaldua eta Janpierre Arbelbide elkarrekin aritu ziren. Nik ez dut lortu erabateko “foga”, ez ditudalako biak argazki batean aurkitu, baina indizio guztiek erakusten dute lotura bat izan zela.

**Zer ondorio atera dezakegu?**

Bada, iraganean Iparraldeko eta Hegoaldeko hainbat arlotan harremanak eta loturak izan direla, baina hegoaldekoentzat Iparraldea egun leku exotiko bat bilakatu dela. Aldiz, iraganean, ez zen leku exotikoa, ez hemen ez Argentinan. Argentinan euskaldunak, euskaldunak ziren, ez Iparraldekoak edo Hegoaldekoak. Euskaraz egiten zuten eta liburuan erakutsi dudanez, Argentinan euskarazko liburuak zeuden, non eta Argentinan argitaratuak. Niretzat jakitea hori existitu dela ikaragarria da. Hainbat edizio daude euskaldunentzat propio eginda. Hegoaldeko euskaldun askok eta askok ez zekien gaztelaniarik, Iparraldekoek batek ere ez. Euskaldunek, Iparraldekoak izan zein Hegoaldekoak izan, espainola behar zuten eta *“Yo amo”* ikasteko *“Nik maite dut”* zuten abiapuntu Argentinan.

**Liburuan hauxe diozu: “Elisee Reclusen lanaren *Les Basques, un peuple qui s’en va* izenak dena esaten du”. Bazihoan herri bat gara, hala ere, beti atxiki nahi izan dugu eta berau eraiki ere. Horretan segitzen dugu nolabait.**

Itxuraz herri agoniko bat gara hasieratik eta agonia horretan gaude. Antza denez, gure gurasoek bizi zutena, guk orain guraso garela, gure umeekin bizi dugu: *“Hauek zelango euskaldunak izango dira?”*, galdetzen dugu. Edota *“hemen-dik joango ote diren...”* kezka bizi dugu. Euskaldunok ez gara mundu honetara herri normala izateko etorri. Nik Patagoniako historia orain aztertu dut, baina liburuan ageri denez, gauza batzuk nire umezarotik hasten dira. Umetan amaren osaba bat amerikanoa neukan, eta aitaren aldetik ere senideak Amerikan zeuden. Gosea aipatzen dut, eta gosea ez da aspaldiko kontu bat, gosea gure aurreko belaunaldi batek bizi izan du, eta perspektiba kontuan hartuta, gure ondorengo belaunaldiak gosea bizi izango du berriro ere. Gizarte honetan ikusten dena ez da oso esperantzagarria. Hau da, nik txikitan ikasitako lexiko bat estalita dago, badirudi ehortzita dagoela, baina erabili beharrean izango gara: *“Gosekila”* berba, esaterako. Guk *“gosekilo”* erabiltzen genuen umetan.

**Diaspora da euskaldunon bizitoki bat. Zer iritzi duzu euskal diasporaz?**

Diasporan ez dut konfiantza larregirik. Aspaldi baten AEBetako Nevadan bizi

izan nintzen sei hilabetez eta ETBko programak egiteko beharbada badago gaia, baina... *“baina”* bat utziko dut. Diagnostikoak behar dira, horiek dira inportanteak, diagnostikoan ez badugu asmatzen ez dago etorkizunik. Nire ustez, Euskal Herriaren etorkizuna gune edo geografia honetan erabakiko da, bertan.

» **“Orijinala banintz pozarren nengoke, baina ez da horrela, ni imitatzen saiatzen naiz, ongi imitatzen hori bai”**

» **“Diagnostikoak behar dira, horiek dira inportanteak, diagnostikoan ez badugu asmatzen ez dago etorkizunik”**

Dena dela, gure historian bestelako asmoak izan dira. Florentzio Basalduak Patagonian proposatu zuen beste Euskal Herri bat eraikitzea, eta sasoi bereko Sabino Aranaren testu batzuetan –egungo Euskal Herririk ez zegoen hala ere– hark ere Euskal Herria Afrikan eraikitzea proposatu zuen, eta inolako lurraldetasunaren inguruko mistifikaziorik gabe. Basalduak nahiz Aranek lurraldearekiko izan zezaketen atxikimendu fisikorik ez dut igarri, testuetan behintzat. XIX. mendean, galestarrek eta judutarrek beste esperimentuak egin zituzten, hau da, hainbat herrik bazeukaten horrelako proiekturen bat, euren jatorrizko lurraldetan arazoak zituztelako, ez gara bakarrak izan.

**Gaur egun Euskal Herria hemen izanen da, edo inon ez.**

Edo hemen trinkotzen dugu masa kritiko bat edo azukre koskor hori urtu egingo da, eta *“izan ginen”*, besterik ez.

**Pesimista...**

Ez. Errealista eta optimista ere bai. Historizismoan badago pentsamendu bat XVI. mendera garamatzana, Leizarragaren garaira. Orduko sasoiako euskara, orduko euskalduntasuna erabatekoa

zen hemen, herria ehuneko ehunean zen euskalduna, eta *“hobea”* horrenbeste. Hori esanda ere, orain inoiz baino hobeto gaude. Pentsatzea XVI. edo XVII. mendean Euskal Herria hobeto zegoela ez da errealista.

**Diagnostikoa aipatu duzu, nola egin diagnostiko hori?**

Esaterako, *“herri hau euskalduna da, espazio berriak eraiki behar ditugu...”* esan ohi da. Hasteko, premisa bat, euskaldunek ez dute euskalduna izan gura. Egutero ikusten dut hori eskola emateko gelara sartzen naizenean. Hogei urteko euskaldunak dira, ume-umetatik ikastolan heziak, eta egiten dute zelan-eta erdaraz. Inork ez du hori ikusi gura?

**Ez dago joera hori aldatzeko erremediorik?**

Asignatura bera ematen dut nik euskaraz eta erdaraz: *“Zertara zatozte euskarazko gelara?”*, esaten diet ikasleei. Aukeran daukate. Hipotetikoki, zuk erretzaileen gelan nahi baduzu egon, hori aukeratzten duzu kurtso hasieran. Eta gela horretara zoaz. Ez egin *“ez-erretzaileen gela”*-ren aukera, eta gero bertara erretzera joan. Hau da, erdaraz egiten baduzu, joan erdarazkoen gelara. Nik dakidala, UPVn [EHUn] inork ez du dokumentu ofizial batean egoera hori aztertu edo aipatu bederen.

**Zergatik egiten du aukera hori ikasleak?**

Ez dakit. Baina hori da aztertu behar dena. Horri buruzko diagnostiko bat egin behar da, edo joera hori aintzat hartu, bestela fikziozko egoera batean bizi gara. Ikasle horiek euskaldunak al dira? Paperetan bai. Horiek ez daude derriortuta euskaldunen gelan ikastera, badute erdarazko gela. Ez dute zertan egon euskarazko espazioan. Momentu batean –orain urte batzuk– egon zen aukera bat kalitatearen alde egiteko, baina kantitatea lehenetsi zen. Zenbakiak hor daude, distira handikoak, baina errealtatea ez da distiragarria. Eguneroko hori bizi duzunaren arabera, somatizatu eta guzti egin dezakezu egoera. Kezka hori ez da agertu ofizialki, baina denok eza-gutzen dugu errealtate tristea. ■

» OKERRAK ZUZEN: 2.595 zenbakian *Historia berrikusten* artikulua ez zen ongi publikatu akats baten ondorioz. Artikulua osorik irakur dezakezue webgunean.



## Gema Intxausti

# Nola kontatu nortasuna



**Xabier Gantzarain**  
@gantzarain

### IZENBURURIK GABE (AUTOPOTRETA), 2011

Boligrafoa fotomatoi gainean. 6 x 6 cm.

Tabakalerak, ireki berritan, jende askorentzat ezezagun samarrak ziren artistak bildu zituen erakusketa batean: *Arenzana Imaz Intxausti Montón Peral*. Abizenak jarrita, artistak berreskuratu nahi zituzten, gaurko egunera ekarri, haien lana erakutsi, nor direla aitortu. Fitxa osatzen dute bertatik pasatzen diren artista guztiekin, ez da gutxi.

Hala dio Gema Intxaustiren fitxan: "Hasierako obrak, garbiketako zapiz eginak, eta zelozko piezak, euskal tesuinguruan laurogeita hamarreko urteetako eskulturaren lengoaien berrikuntza markatu zuten proposamenen artean koka daitezke. Geroago, Gema-

ren obrak ukitu narraziozkoagoa hartu zuen, zine, musika edo literaturako erreferentziei oso leku garrantzitsua eman baitzuen."

Artistek elkarrizketa pribatuetan goraipatzen duten artista da Gema Intxausti Miangolarra (Gernika-Lumo, 1966ko irailaren 9a). Artelekun ibili zen 90eko hamarkadaren hasieran, baina gero kanpoan egin ditu urte asko.

Madrialeko Atocha geltokiko fotomatoi an atera zuen argazki hau.

*Eremuak* aldizkariaren 4. zenbakian, elkarrizketa egin zion Beatriz Herraezek. "Nire bizitzan, bidaiaria etengabea izan da. (...) Bidaiaren ideia hor egin

da beti, txikitatik. Niretzat, gure ingurutik harago zeuden leku haiek garrantzitsuak ziren, baina orduan ez nekien zergatik. Nire ustez, lurraldeak gutako bakoitzaren nortasuna markatzen du, baina ez naiz horrekin eroso sentitzen. Hurbilago sentitzen dut bidaiari lotutako nortasun baten ideia, hori, nolabait, arinagoa izango balitz bezala. Horri esker, leku bati eta haren iraganari lotuta egon gabe sortzen diren esperientzia pertsonalekin bat egiten dut. Neure buruari galdetzen diot nolakoa izango litzatekeen lurralderik gabeko nortasun batez pentsatzea".

Baita nik ere. ■

## KULTURKRITIKA

» LIBURUA

# Debadio politiko antzuak?



Amaia Alvarez Uribe

Itxaro Bordak argitaratu duen lehen antzezlan da *Odolak su gabe diraki* eta “euskal gatazka” da jorratzen duen gaia, ausarki, amorruez, zuzen, gordin. Senideen arteko loturari egiten dio erreferentzia izenbururako aukeratutako esaera zaharrak; ezagunarekiko joerari eta aldatzeko zailtasunei; maite duzunarekiko pasioari.

Normalean jendeak argi hitz egiten du bere kideekin elkartzen denean kalean, tabernan edo plazan, eta horiek dira hain zuzen egileak aukeratu eta paperera ekarri dituen lekuak. Horretarako antzerkira jo du, bertolaritzarekin batera ahozkotik, bat-batekotik, pertsonen arteko hurbiltasun eta elkarreraginetik gertuen dagoen genero literariora.

Deserosoa, desatsegina da tarteka irakurketa, gai tabu edo tentuz ibiltzekoa baita hau, garai berriak izan arren gatazkek bizirik dirauelako, baina ahoan bilorik gabe mintzo dira pertsonaiak orriotan. Besteak beste hurrengo irakur dezakegu: “Sobera mintzo zara: euskaldun zintzoak kasu egiten du zer erraten duen... nola erraten duen... norekin erraten duen... nori erraten dion...”.

Bere aurreko lanetan egiten duena egiten du hemen ere: euskal nortasuna, euskalduntasuna, euskal nazioa gaurko markora ekarri eta berreraiki. Baina orain arte ez bezala, diskurtso hegemonikoa(goa)k elkarren aurrean ipintzen ditu (aurreko lanetan mugatik eta periferietatik begiratu diolako euskal izaerari eta oraingoan euskal



## *Odolak su gabe diraki*

ITXARO BORDA

Maiatz, 2017

komunitateko gunetako ahotsei eman die bozgorailua).

Antzerkiak horretarako aukera ederra eman dio, protagonistak elkarrekin hizketan ipintzeko, elkarren alde eta elkarren kontra abertzale(ohi)ak, preso(ohi)ak, politikariak... Horrela, errelatoa edo kontakizuna deitzen diogun hori osatzeko egungo lanean bere alea ipini du.

Izan ere, gure historia hurbilaren parte izan garenoi gure bizipenen berri eman dezagun eskatzen digu zeharka. Pertsona politikoak delako, “diskurtso fosilduak” gainditu behar ditugulako, mikro-historiek ere osatzen dutelako errealitatea edo egia.

Agian generoarekin egiten ari garen moduan nazioarekin ere geure burua deseraiki eta ikuspegi kritikoz begiratzeko aprobetxatu ahal dugu lan hau; urteetako inertziak apurtzeko; barruko “euskal” zapaltzailea eta “euskal” zapaldua hizketan jartzeko. ■

*Itxaro Borda Xarriton idazlea  
(Baiona-Oragarre, 1959).*



» DISKOA

# Furia eta desio guztiak batean



Iker Barandiaran  
@IkerBarandiara

Ez naiz bakarlarien zale amorratua, salbuespen gutxirekin, jakina. Ez da erraza pertsona bakarrak neu hunkitu edo dardaraztea. Bada, ez-dakit-zergatik, izenagatik agian, banuen jakin-mina Eneritz Furyak entzuteko, eta inolako erreferentziarik gabe diskoa erosi nuen Musikazuzenean-en postuan. Eta ia ohartu gabe harrapatu naute diziplina gutxiko ume bihurri horren ahots eta jokoeak. Eneritz ez da umea, jakina, eta aske badihardu ere, atzean lan handia dago, minimalista dirudiena, baina DIY edo *Zuk zeuk egizu* lelopean emaitza oso borobilak lortzen ditu.

Eneritz Dueso irundarra oso gazte hasi zen musikan; trikia lehenengo, gitarra gero... Puntean lehen pausoak, metalean ere aritua eta Kasernarat proiektuarekin rockabillyari buelta erdi eman zion. 2016an, baina, bizitzaren bidezidorrek bakarka aritzera bultzatu zuten eta, gerora, honako diskoa grabatu du.

Eneritz Furyak artista polifazetikoa da, zaletasun asko dituena, eta horien artean diseinua, idaztea eta musika atera ditu nabarmen azalera. Hiruetan dauzka estilo propioak eta oso dotoreak, aintzat hartzekoak. Bere kantuez esan izan dute folka, bluesa, rocka eta punka batzen dituela;



Eneritz Dueso irundarra da Eneritz Furyak.

## Eneritz Furyak

ENERITZ FURYAK

Autoekoizpena, 2018



baita bere arimaren sakontasunetik abesten duela. Baliteke, badu horretatik guztietatik, baina era berean ez nuke horietara mugatuko. Furyak-en ahotsak erregistro propioa dauka, baina badira erregistro asko, eta aldi berean guztietan da bera. Gitarra jotzen, aldiz, oso minimalista dirudi, baina ez du gehiago behar.

*Azken hatsean* ederra da, arnasa eten aurretik energiaren itsaskor bihurtzen dena; *Maldan behera* denborak itoko balu bezala 45RPMtara errezi-tatutakoa eta lelo borobila daukana; *Hamaika izar* folketik abiatu eta ahotsarekin jolastuz erregistro rockeroa hartzen duen perla; xuxurlatuz *Esnatu nintzen*, baina ahotsa biderkatu eta *Ain\_1*-en kadentzia hartzen du; *Mitxoleta* bi ahotsez aberastuta klasikoagoa da; *Munstroa*-k aurpegi ugari ditu: cabaretero, iluna, itsaskorra erabat, baina finean biluzia, hit!a hau ere; *Papiroa loretan*-ek PJ Harvey eta post-rocka ditu maite; *Atrezzo* urgertzian bizi eta intentsitatearen gose da; eta *So egin* folkylene. ■



# Balea hegodunak



Irati Majuelo Itoiz

ARGAZKIA: BELAKO

## BELAKO TALDEAREN KONTZERTUA

Iruñeko Zentral aretoan, apirilaren 21ean.

Urpean geratzear zegoela iritsi da eguzkia hirira. Neguan iraun duten espeziemenak urazalera atera dira bizitza ospatzera, eta hortxe zaude zu, zapaburu aztoratuaren artean, kontzertu batera joateko zain. Aurretik 73 egun geratuko ez balira oraindik, Iruñea San Ferminen atarian dagoela esanen zenuke: txarangak, bermuta eta eguzkitako betaurrekoak Alde Zaharrean, kale-okupazioaren aldarri masiboa. Inork ez du handik mugitu nahi. *Els carrers seran sempre nostres*. Egia esan, horrelako gaugiroarekin leku itxi batean sartzeak nagia ematen du.

Hala ere, Zentratera hurbildu zara eta harritu egin zaitu aretoa horren beteta aurkitzeak. Ez dakizu oso ongi zergatik, baina oraindik harritu egiten zaitu auzokideen gustu musikal onak. Yellow Big Machine taldea ateratzerako, leku gutxi geratzen da libre garagardo bat lasai hartzeko. Aretoko giroa epeltzen doa bilbotarren abesti-zerrendak aurrera egin ahala, eta kontzertua amaitzerako publikoa bero utzi dute, Belako noiz aterako zain. Isilune urduria; badatoz.

Ez zenuke jakinen esaten zehaztasunez zer den. Ez dakizu inguruan kiribiltzen zaizun ahots hori den, gitarrak eta baxuak elkarri begiratzean sortzen duten zarata ederra edo bateriaren indar amaigabea. Ez zenuke jakinen esaten ea horregatik den. Eta hori baino askoz gehiago dela badakizu. Belakok maitemindurik uzten zaitu oholtza baten gainean ikusten dituzun bakoitzean. Ezin duzu ekidin haiei begira ateratzen zaizun begirada tonto hori. Kontzertua amaituta berdin jarraitzen duzu. Ez da seinale txarra izanen.

Hala ere, esanen zenuke Zentralekoa ez zela, akaso, plazarik errazena mungiarrentzat. Otsailean disko berria Bilbon aurkeztu zutenetik lehenengo kontzertua izan da Euskal Herrian, eta *Render Me Numb*, *Trivial Violence* jendaurrean eskaintzen daramaten erritmoa ikusita, nekaturik iritsi zitezkeela pentsatu duzu une batez. Baina zer da hori azkenengo urtean munduari buelta eman dion talde batentzat. Diskoko lehen abestiko *-Maskenfreiheit I-* es-

ku-zartadak entzun eta indarrez hartu du eszenatokia laukoteak, kontzertuak emanen duena hasieratik jarrerarekin aurreratuz. Maskarak kanpora!

Nabari duzu publikoko jende askok abesti berriak oraindik ez dituela guttiz ezagunak, eta zertarako engainatu, zuk ere ez. Gaueko lehenengo klimaxa aurreko diskako *Hegodun baleak* kanta-rekin heldu da, eta areto guztiarekin bat mugitu duzu burua alde batetik bestera, biharko tortikulisarekin batera pare bat hego aterako zaizkizun itxaropenez. Hortik aurrera denak egin du gora, eta azkar pasa dira azken akorderarte-ko minutuak. Izerditan eta irribarrea ahoan agurtu dute mungiarrek publikoa, haiek ere sortzen duten magia zaratatsu hori nondik datorren jakinen ez balute bezala.

Zeharka begira zaudela, hego pareta nabaritu diozu bakoitzari garondotik hurbil, apenas hauteman daitezkeen balea hego bi. Hor dago Belako, urpean geratzear zegoen hiri honetatik hegan ateratzeko prest. ■



## Juliette Bergougnan. Ongi etorria eraikitzen



**Cimade elkarteak Baionan daukan egoitzan pasatzen ditu oren anitz Juliette Bergougnanek. Gero eta pertsona gehiagori eman behar diote arreta. Batetik, orain arteko sarbideetan Europak hesiak jarririk, Euskal Herria zeharkatzen duen sarbide berri bat garatuz doalako eta bestetik, Frantziako Gobernuak immigrazioari buruzko lege are gogorrago bat duelako aurkezturik. Guztiaz hitz egin dugu Bergougnanekin.**

## “Guri dagokigu jendeen ikusmoldea aldaraztea, ez delako beti irekia”



TESTUA ETA ARGAZIAK:

Jenofa Berhokoirigoin

@Jenofa\_B

### Inplikazioa beharrezkoa

“Gaur egungo egoera ikusiz, etorkinen errealitatea gure mendeko arazo handienetariko bat dugula iruditzen zait. Uste dut gutariko bakoitzak behar dugula gai horretan inplikatu, egoerak hori eskatzen duelako. Erretretan izaki, Cimade elkartearen nabil laguntzen. Etorkinen alde ezinbesteko lana eginen dabilen elkarteak da Cimade eta tamalez, geroz eta lan gehiago ukanen du egiteko”.

#### Batera, EH Bai, Hemen, Cimade eta beste. Zergatik hainbeste militantzia?

Ene bizia da, ez dut ikusten ene bizia bakarrik lanaz eta familiaz beterik. Aber-tzalea sentitzen naiz eta betidanik horretan ari izan naiz, bereziki goi mailako formakuntzaren arloan. Bakoitzak badu berea ekartzeko herriari, edozein herri-ran.

#### Etorkinen laguntzen zabiltza. Sarbide berri bat ari da garatzen Euskal Herritik.

Bai. Lehen Libiatik eta Italiatik pasatzen ziren baina geroz eta zailagoa dutenez, beste bide batzuetatik pasatzen dira; Saheleko bidea hartuz, Cadizetik edota Melillatik Europara sartuz eta hemendik pasaz. Ura bezala dira, urak beti bere bidea atzeman behar du, ez bada alde batetik, beste aldetik pasaz. Hori horrela da. Zergatik? Ezin dutelako han bizi.

#### Agintariei berdin zaie hori.

Ezin dute haien herrian bizi! Ez da baitzupada gerlagatik, izan daiteke klima aldaketagatik, bortizkeriagatik, multinazionalek haien lurak hartu dizkie-

telako... Adibidez, Kongoko Errepublikan Demokratikoan 22.000 hektarea lur hartu dizkiete urtegi alimale bat eraikitzeko. Zer egingo dute hor bizi direnek? Lehenik hirira doaz, hiri bazterretan bizitzen saiatzen dira eta aberatsenek edo dirua atzematen dutenek ihes egin eta honat datoz. Politika zinez bortitza dugu, desohore bat da Europarentzat.

#### Zer lan eramaten duzue?

Hego Euskal Herrikoekin ari gara bilkura batzuk egiten. Hasteko jakin behar dugu egunero zenbat pasatzen diren, nora nahi duten joan eta zein diren haien beharrak. Denek ez dutelako hemen egon nahi, batzuek Frantziara, Finlandiara, Alemaniara edota Inglaterrara joan nahi dute. Gure bulegotik pasatzen direnak prest dira hemen gelditzeko, baina gutxiengoa dira. Egoera xeheki aztertu behar dugu horren araberan antolatzeko.

#### Elkartasun sarea zein heinekoa da?

Elkartasuna bada baina ez aski. Etorkinekin izeneko kolektibo bat muntatu



*“Baigorriko apaiza ados zen Txetxeniako familia hartzeko, baina parrokiako kontseiluari galdetu eta ezetza erantzun zuten”.*

dugu, Cimade eta beste egitura batzuen artean. Komisio ezberdinen artean «harrera hobeagoa etorkinei» deiturikoa dugu. Ezinbestekoa zaigu, nahiz eta argi ukan harrerak publikoa izan behar lukeela. Baina, ez denez horrela, anartean, elkartasun hau sustatu behar dugu. Harrera taldeak badaude hainbat herritan, Kanbon, Bidaxunen, Donapaleun, Baionan, laster Donibane Garazin, Donibane Lohizunen... Gainera, inguruan jendea dago beste molde batzuetara laguntzeko.

#### **Harrerari irekia da hemengoa?**

Guri dagokigu jendeen ikusmoldea aldaraztea, ez delako beti irekia. Adibidez, oroit naiz Txetxeniako familia bat genuela aterpetzeko, lau umeeekin zegoena hotel bateko gela batean baina hortik joan behar zuena. Uztaritzeko serorekin harremanetan sartu nintzen eta Urepelen etxe bat libre bazutela erran zidaten. Baigorriko apaiza ados zen baina parrokiako kontseiluari galdetu eta ezetza erantzun zuten. Herriko etxeak ere apartamentu bat zuten,

merak uste zuen kontseiluak onartuko zuela, baina ez, lau alde eta zazpi kontra agertu ziren. Hori ere bada gure Euskal Herria. Alta, Urepelen kasik etxe guztietarik joan ziren Ameriketara, artzain. Ez dugu ahantzi behar nondik heldu garen. Gureak ere migratzaile ziren. Ez dira batere identifikatzen gaur egungoei, beltzak direlako, musulmanak... baina ez dut uste hori denik bakarrik. 36ko Gerlan Hegoaldetik etorritako gure anai-arrebak ere ez ziren ongi etorriak izan, alta gure hizkuntza, kultura, erlijioa zuten. Mentalitate hauek aldatu behar ditugu guztiz.

#### **Frantziako Gobernuak lege berri bat bidean du.**

Bortitzagoa bilakarazi nahi du legedia. Orain arte geriza eskubidea errefusatua bazitzaion, etorkinak 30 egun zituen helegitea jartzeko, orain 15 egun ukanen ditu. Orain arte 45 egun pasatzen zituzten erretentzio zentroetan. Hori ezin onartuzkoa dugu, errugabeak direlako. Zergatik kentzen diegu askatasuna! Lege honekin 135 egun pasatzen ahalko

dituzte. Beste berritasun bat da pasabide baimenduetatik pasatzen ahalko direla bakarrik, zeinetan haien hatz markak hartuko dizkieten.

#### **Fitxatzeko molde eraginkorra dute hau.**

Bai baina gauza da Europara sartzean pasatako lehen herrietan ezin dituztela denak hartu. Italiak ezin du, Greziak eta Espainiak ere ez. Gainera, ekonomia ahula dute eta bizia nekea izanki etorkinean ikusten dute koplá-burukoa; eskuin muturreko emaitzak gora doaz.


#### **Elkartasuna zigortzeaz gain, papergabea salatzea galdetzen digute.**

Hori ere badakar legeak. Geriza eskubidea galdetutakoak erantzuna ukan bitartean CADA deitu harrera zentroetan egoten dira, diru laguntza batekin. Lege honekin erantzuna izugarri fite etorriko zaie eta gelditzen direnen izenak ematea galdetua zaie bertako langileei. Gizarte Segurantzakoek ere salatu behar dituzte egoera irregularrak. Erabat gezurra da Macronek diolarik humanitate gehiago dakarren legea dela. ■



## Amatiñok bere burua flajelatu du Intxaurrendoko kuartelean, Altsasuko gazteei “gauzak nola egin” irakasteko

Luis Alberto Aranberri Amatiñok zeresana eman du berriz ere. Joan den astean Altsasuko gazteak pare bat hilabetez Guardia Zibilaren kuarteletan sartuko lituzkela esan ondoren, “ez egonean egoteko, oheak egin, platerak garbitu eta erratza pasatzeko baino ez”. Gazteek kasurik egiten ez diotela ikusita, eredu izatea erabaki du ETBko zuzendari ohiak: prozesioa egin du Intxaurrendoko kuarteleraino, bizkarra odoletan geratu arte bere burua flajelatu, “ea behingoz ikasten duzuen nola gizarteratu” oihuka. Eszena ikusi duten Guardia Zibilek aitortu dute, beraiek ez zutela lana hobeto egingo. Okerrena gero etorri da, nolana: prozesioa amaitzean, Amatiñok txaketa kuadratu horrible bat jantzi du. Eta hor bai, espektakulua ikusten ari zirenek min hartu dute begietan.



Groucho Marx 1962ko inauterietan, Amatiñoz mozorrotuta.

### SAREAN ARRANTZATUA

Txakurtu, txakurtu!



Eh, horizkoa, etorri hona!



## ETAren amaiera Eguberrietan ez gertatzea kritikatu dute Euskal Herriko koinatuek

“Oso gai ona zen Eguberrietako afarian eztabaidatzeko”, esplikatu du zure koinatuak prentsaren aurrean egindako adierazpenetan. “Nola utziko dute orain, bazkari familiarrik ez dagoen momentu batean?”. Zure koinatuak azaldu duenez, berak badaki nola bukatu beharko litzatekeen ETAren ibilbidea eta erakunde armatua ez da hori betetzen ari. “Ez dakit

nola ez zidaten iritzia eskatu, puntu honetara iritsi baino lehen”. Euskal Herriko Koinatuen Elkartea dagoeneko lanean ari da Eguberrietan beste eztabaidagai batzuk proposatzeko eta laster izango duzu horren berri. ETAk adierazi du, Gara, Naiz eta ZuZeu-ra bidalitako ohar batean, erakundearen desegitea Amaren Egunean jarri dutela opari bat aurretzeko.



# ZULOAN

Bidaia bat AHT  
eta lan-esplotazioan  
barrena

Urko Apaolaza Avila



14 €

ARGIA  
// LIBURUAK //

## AHTko obren hesi laranja gainditu dugu

Lehen eskuko dokumentazio eta testigantzen bidez  
egindako bidaia AHTko lan-esplotazioan barrena.

ARGIA eta Manu Robles-Arangizen elkarlanari esker argitaraturiko liburua.

ESKAERAK

[www.argia.eus/denda](http://www.argia.eus/denda) | ☎ 943 371 545 | [azoka@argia.eus](mailto:azoka@argia.eus)

AHTzuloan



@AHTzuloan



[www.argia.eus/blogak/zuloan](http://www.argia.eus/blogak/zuloan)



# "ELS CARRERS SERAN SEMPRE NOSTRES" kamisetak ARGIAAn salgai

Kamiseta hau erosita, 2 euroko ekarpena egingo diozu Kataluniako La Directa herri hedabideari, eta 2 euroko ekarpena ARGIAri, Kataluniako independentzia prozesua epe ertainera ere zorrotz jarraitu ahal izan dezan.



**Informaziorik gabe ez dagoelako demokraziarik,  
kazetaritzan ere sustatu independentzia!**

**ESKAERAK**

[www.argia.eus/azoka](http://www.argia.eus/azoka) | [azoka@argia.eus](mailto:azoka@argia.eus) | ☎ 943 371 545